At access level, Watters recommends studying the barriers and facilitators of the actual realization of the entitlement. Levesque's framework explores the accessibility of individuals specifying the characteristics of the healthcare system and services that allow their access and the individual abilities that facilitates reaching them. This person-centred perspective brings the framework closer to the experiences of access of the care-users. The right to health, focused on the health system perspective, states the characteristics that the health systems should fulfil in order to put into practice the healthcare services everyone should be entitled to. Through the joint exploration of this level, the question "Which are the needed characteristics that a health system should fulfil in order to be able to provide accessible and good quality healthcare services? Which are the factors that facilitate persons to reach them? " can be answered.

Finally, Watters places appropriateness as a subsequent aspect of access and suggests exploring how the content of the received healthcare services are responsive to immigrants' particular needs. Nevertheless, Levesque considers this aspect as part of access itself, but describes it in a very similar way than Watters. Therefore, this aspect needs to be explored thorough the reported experiences of the care-users. The right to health framework also considers, under acceptable characteristic of the health systems, which aspects of appropriateness need to be necessary elements of the provided services for the right to health to be fulfilled. Being the aspect on which the three frameworks has

coincided the most, the question that can be responded is "Do healthcare services respond to immigrant patients' needs? Do they consider them culturally appropriate?"

Table 3 presents the utilized frameworks and the interrelation spaces between them. Considering the different approaches of the presented frameworks, in this thesis, they have been used both in a separate and in a joint way, taking advantage of the strengths of each of them:

The multi-level framework was useful to plan the necessary aspects that needed to be explored in the thesis. Therefore, each of the objectives correspond to each of the levels of the access identified by Watters: the first study's objective, assessing the impact of the law change on the utilization of alternative healthcare services, corresponded to the entitlement field. The second study's aim, exploring the perception of healthcare professionals on immigrant women's access, focused on the access level. Finally, the objective of the third study, analysing the experiences of Sub-Saharan African women with healthcare services, corresponded to the appropriateness level.

Person-centred access framework has been used for guiding the qualitative studies with healthcare professionals and immigrant women, since the dimensions of approachability, acceptability, availability, affordability and appropriateness, are very close to the reported experiences of the care-users and care-providers.

Finally, considering that accountability is a guiding principle of the right to health, it has been used to critically explore how the statements of the right to health were applied and made accountable when the adoption of retrogressive measures for immigrants' access to healthcare were taken in Spain in 2012. Moreover, through the perceptions and experiences described in the studies two and three, how the law change affected access of immigrant women is discussed.

Based on the questions arisen from the joint perspective of the framework, the result from the quantitative and qualitative studies has been organized in the discussion. This allowed to link the results from all the three studies under a common frame of the three levels of entitlement, access and appropriateness.

Table 3. Summary of the frameworks used in this thesis

	Multi-level access to healthcare	Person-centred access to healthcare	Right to health
Levels of access	***Entitlement level*** Written, formal instruments that have a direct bearing on the available healthcare services for immigrants. Conventions, charters and national or regional laws and policies		***Entitlement*** to receiving healthcare as timely and appropriate medical care and underlying determinants of health Obligations of social actors on the right to health Guiding principles of the right to health
	Access level The gateways to reach healthcare and the extent to which migrants are able to receive the healthcare services that they are entitled to Related to the factors that inhibit or facilitate the realization of their entitlement	***Dimensions of accessibility and related abilities:*** ***Approachability.*** The extent the health services and the way to reach them can be identified. Ability to perceive need for care ***Acceptability.*** Cultural and social factors that make persons to accept different aspects of the service. Ability to seek care ***Availability.*** Physical existence of the healthcare resources with sufficient capacity to produce services and being reachable in a timely manner. Ability to reach healthcare ***Affordability.*** Economic capacity for people to spend resources and time on accessing healthcare. Ability to pay and generate economic resources ***Appropriateness.*** Fit between services and patients' needs, given the technical and interpersonal quality of the services. Ability to engage in healthcare	***Characteristics of health systems to fulfil the right to health:*** ***Available.*** Sufficient in quantity ***Accessible*** physically, financially and based on non-discrimination ***Of good quality.*** ***S***cientifically and medically appropriate ***Acceptable.*** Respect of ethics and being gender sensitive and culturally appropriate
	Appropriateness level Healthcare services' ability to integrate an effective assessment of health needs of immigrants Related to the content of the received healthcare services and the extent they are responsive to the particular needs of immigrants		

KOKAPENA/SETTING

Ezaugarri sozio-demografikoak

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE), Euskadi bezala ere ezagutua, Espainiako 17 autonomia erkidegoetako bat da. Espainiako iparraldeko kostaldean kokaturik dago eta 7.242 km2-ko azalera dauka. Euskadi, 3 probintziatan dago zatiturik: Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba (2. Irudia).

2. Irudia. Europako eta Euskadiko mapa

Iturria: Ezezaguna

2018ko urtarrilean, autonomia erkidegoak 2,198,657 pertsonako populazioa zeukan, zeinetatik 206,175 jatorri atzerritarrekoak ziren. Hau da, populazio osoaren %9.4a. Hauen artean, %47.39 gizonezkoak eta %52.61 emakumezkoak ziren (61). Azkenengo 20 urteetan, erroldan erregistratutako jatorri atzerritarreko populazioak gora egin du urtez-urte, 2013 eta 2014 urteetan salbu, zeinetan beherakada txikia eman zuen (3. Irudia).

3. Irudia. Euskadin erregistratutako atzerritarren kopurua urteko



Iturria: Ikuspegi, 2018 (61)

Euskadin erregistraturik dauden immigranteen jatorrien artean, hamar jatorri prebalenteetatik zazpi Latino Amerikarrak dira. Hala ere, jatorri prebaleentenak Maroko, Colombia eta Romania dira (61). 2018an erroldan erregistratutako atzerritar gehien zeukan probintzia Bizkaia zen, 100,611 immigranteekin (61). Bilbo, Bizkaiko hiriburua da eta immigrante gehien zuen hiria, hauek 26,074 zirelarik; hau da, bere populazioren %11.5a. Hauetatik, %50 inguru emakumezkoak ziren (62).

Beste testuinguruetan gertatzen den bezala, Euskadin erregistratu gabeko zenbat immigrante egon daitezkeen ezin da estimatu, osasun sistemako kudeaketarako erronka suposatzen duelarik. 2017an, dokumentu judizial batek Euskadin egon daitezkeen erregistratu gabeko immigranteen kopurua 14,632 eta 22,886 artean estimatu zuen (63).

Osasun sistema nazionala eta Euskadiko osasun sistema

Espainiako osasun sistema nazionala deszentralizatua da eta gobernu zentraleko eta 17 erkidego autonomikoen osasun sistemek osatutako osasun zerbitzuen multzoa bezala definitzen da (64).

Erkidego bakoitzak berezko osasun sistema dauka eta honen kudeaketaren arduraduna da, Estatuko lege berdin eta lege autonomiko desberdinen bidez arautua. Osasun sistema nazionaleko lurralde arteko kontseiluak, autonomia erkidegoen osasun administrazioak koordinatzeko eta hauen arteko kooperazioa kudeatzeko ardura dauka (76).

4. Taula. Osasun sistema nazionalaren konpetentzien ardura

Osasun sistema nazionaleko lurralde arteko kontseilua	**Gobernu zentrala**	Osasun printzipioak eta koordinazioa Kanpo-osasuna Medikamentuen kudeaketa Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren kudeaketa
	Autonomia erkidegoak	Osasun plangintza Osasun publikoa Osasun zerbitzuen kudeaketa
Udal kontseiluak		Osasungarritasuna Osasun zerbitzuen kudeaketarako laguntza

Iturria: Sistema Nacional de Salud, 2012. Government of Spain (64)

Euskadiko osasun sistema honakoek eratzen dute: alde batetik Osasun Departamentua, planifikazioa, kudeaketa, finantziazioa eta erregulazioa jarduten duena eta bestetik, Osakidetza, osasunerako euskal erakunde publikoa dena, eta osasun zerbitzuak eskaintzen dituena (65).

Euskadiko osasun sisteman hiru mailako arreta eskaintzen dira: lehen mailako arreta (LMA), arreta espezializatua eta osasun mentalekoa. Osasun sisteman sartzeko biderik ohikoenak, ospitaletan eta irekiera zabaleko osasun zentroetan kokaturiko emergentzia unitatetatik eta lehen mailako arreta zentroetatik izaten dira. Autonomia erkidego osoan 16 ospitale, 313 lehen mailako arreta osasun zentro eta 47 osasun mentalerako zentro daude, beste espezialitateak eskaintzen dituzten zentroez gain (65).

Bezeroen arretarako profesionalak, edo administratiboak ere deituak, bezeroei informazioa emateko eta osasun sistemarako sarbidea arautzen duten legeak aplikatzeko arduradunak dira, besteak beste (66). Osasun zentroetako sarreretan kokatzen dira eta orokorrean, zentrora heltzen diren pertsonek topatuko dituzten lehenengo profesionalak dira.

Osasun langileen artean, erizainak eta medikuak dira betiere osasun zentroetan topatu daitezkeenak. Erizainek osasunaren promozioa, prebentzioa, mantentzea eta berreskurapenerako zainketak ematen dituzte (67). Medikuek, horrez gainetik, gaixotasunen diagnostikoak eta tratamenduak eskaintzen dituzte (68). Sexu eta ugalketa osasun arreta emaginek lehen mailako arreta osasun zentroetan eskaintzen dute. Osasun zentro espezializatuetan, emaginez gain, obstetrek eta ginekologoek eskaintzen dute.

Dohaineko klinikak Euskadin

Euskadin, osasun sistemaz gain, immigranteei eta osasun sistematik kanpo geratzen direnei osasun arreta eskaintzen dieten dohaineko klinikak badaude. Dohaineko klinikak "*lehen eta bigarren mailako osasun arreta eskaintzen duten komunitatean oinarrituriko eta irabazi gabeko erakundeak dira. Zerbitzu hauek dirurik edo asegururik gabeko pertsonei dohainik edo kostu baxuan eskaintzen dira*" (25). Bilbon kokatzen dira autonomia erkidegoan dauden dohaineko lau dohaineko klinika bakarrak: Batean, osasun sistematik kanpo dauden pertsonei osasun eta gizarte arreta eskaintzen diote (1. Kutxa). Beste hirurek, edozein emakumeri sexu eta ugalketa osasun arreta eskaintzen diote (2. Kutxa).

1. Kutxa. Lehen mailako arreta dohaineko klinika

CASSIN, immigranteentzako osasun eta gizarte arreta zentroa, dohaineko klinika da, non lehen mailako osasun arreta eta gizarte-lan kontsultak eskaintzen diren. Médicos del Mundo Euskadi Gobernuz kanpoko Erakundeak (GKE) finantzatzen du. Bilboko zentrotik oso gertu dago, San Frantzisko auzoan, populazio immigrate ugari daukana eta maila sozioekonomiko baxukoa dena.

1997. urtean hasi zen pertsona guztien osasun eskubidea lortzeko helburuarekin. Gaur egun, CASSIN-en arreta jasotzeko baldintzak, osasun sisteman sartzeko eskatzen diren baldintzak ez betetzea eta 18 urtetik gorakoa izatea dira. Osasun kontsultak astean 2 egunetan eskaintzen dira, 2 ordu eta erdi egun bakoitzeko.

13 mediku, 14 erizain eta hainbat administratiboren artean kudeatzen dituzte kontsultak, guztiak boluntarioak direlarik. Osasun kontsulta orokorrak, zaurien sendaketa, haurdunaldi testak, GIB testak, errezetak, odol analisiak, sexu eta ugalketa osasun dohaineko kliniketara deribazioak eta abar egiten dira. CASSIN-en emandako errezetak edozein farmazietan ordeztu daitezke. Gainera, beste erakunde sozial batek dohaineko medikazioa ematen die hau erosteko dirurik ez daukatenei.

Osasun kontsultarekin batera, kontratauriko gizarte langile batek, beste gizarte langile boluntario batzuekin batera, gizarte arreta kontsultak eskaintzen ditu. Hauetan, legeriari buruzko informazioa eta osasun sistema publikoan sartzeko informazioa eskaintzen dute. Gainera, osasun sinteman emandako immigranteen eskubideen urraketak bildu eta Ararteko herriaren defendatzailearen aurrean aurkezten dituzte, immigranteen osasunerako eskubidearen aldeko intzidentzia politikoa eginez.

2. Kutxa. Sexu eta ugalketa osasun dohaineko klinikak

Klinika hauek 70. eta 80. hamarkadetan sortu ziren, osasun sistemak ematen ez zituen zerbitzuaz eskainiz, emakumeen osasun egoera hobetzeko helburuarekin. Nahiz eta emakume talde eta auzokide erakundeen kontuz hasi, gaur egun, Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ditu.

Kliniken gaur egungo aktibitatea sexu eta ugalketa osasunean zentraturik dago. Gainera, beste motatako zerbitzuak ere eskaintzen dituzte: arreta psikologikoa eta psikiatrikoa, droga adikzioetarako arreta, aholkularitza legala eta tailerrak genero berdintasunean, genero indarkerian, emakumeen jabekuntzan eta gizarte integrazioan. Kontsultak jasotzeko, klinika dagoen auzoan erroldaturik dauden emakumeek lehentasuna daukaten arren, errolda edo erregistratu gabeko emakumeei ere arreta ematen diote.

San Frantzisko auzotik gertu kokatuta dagoen dohaineko klinikan, 2000. urtetik 2014. urtera, 38.304 sexu eta ugalketa osasun kontsulta egin ziren. Hauetatik 5.151 emakume immigranteenak izan ziren. Ez dago beste kliniken datu eskuragarririk.

IKERKETA PROZESUA/RESEARCH PROCESS

Tesi hau, ikerketa kuantitatibo batean eta bi ikerketa kualitatibotan oinarritzen da. Bi metodologia hauen elkarketak, osasun langileen eta immigranteen esperientziak, eskuragarri zeuden datuen osagarri izatea bilatzen zuen.

Lehenengo, emakume immigranteak Euskadiko osasun zerbitzuetarako sarbidean dauzkaten oztopo eta bideratzaileak identifikatu nahi izan ziren. Honetarako, dohaineko kliniketan lan egiten duten osasun langileen pertzepzioa aztertu zen elkarrizketen bidez. Lortutako emaitzen artean, Afrika Sub-Saharartreko emakume immigranteak osasun sistemarako sarbidean oztoporik latzenak topatzen dituztenak direla aurkitu zen. Ikerlan hau gaiarekiko lehenengo hurbilketa izan zen.

Bigarren helburua betetzeko, datu kuantitatiboak atera ziren Médicos del Mundo Euskadik kudeatutako dohaineko klinikako kontsulta erregistroetatik. 2012. urtean emandako legearen aldaketak dohaineko klinikako kontsulta kopuruan eduki zezaken eragina aztertzeko, datuei erregresio analisi binomial negatiboa aplikatu zitzaien.

Ikerketa hau burutzen zen bitartean, hirugarren ikerketarako datuak batu ziren. Lehenengo ikerketa kualitatiboaren emaitzetan oinarriturik, emakume immigrante Sub-Saharartren osasun sistemaren izandako esperientziak aztertu nahi izan ziren. Horretarako, datuak elkarrizketen bitartez bildu ziren.

Lehenengo eta bigarren ikerketaren emaitzak prest zeudelarik, lehen mailako arreta dohaineko klinikan lan egiten duten osasun langileekin mintegi bat egin zen, emaitzak aurkeztu eta berrelikadura jasotzeko helburuarekin.

5. Taulak, kapitulu bakoitzaren helburua, ikerketa diseinua eta analisi mota biltzen ditu.

5. Taula. Kapituluen laburpena

	1. Kapitulua	**2. Kapitulua**	**3. Kapitulua**
Helburua	114/2012 Dekretuaren aplikazioak dohaineko klinika baten kontsulta zenbakian izandako eragina aztertzea	Emakume immigranteek Euskadiko osasun sistema publikorako eta sexu eta ugalketa zerbitzuetarako sarbidean topatzen dituzten oztopoak eta faktore bideratzaileak ezagutzea, dohaineko kliniketan lan egiten duten osasun langileen pertzepzioa aztertuz	Euskadiko osasun sistemarako sarbideari eta erabilerari buruzko emakume immigrante Sub-Sahararren pertzepzioak eta esperientziak aztertu
Ikerketa diseinua eta parte-hartzaileak	Osasun kontsulta kopurua 2007ko urtarriletik 2017ko uztailera (interbentzioa edo legearen inplementazioa 2013ko urtarrilean) n= 9272	11 elkarrizketa indibidual dohaineko kliniketan lan egiten duten osasun langileekin	14 elkarrizketa 8 herrialde desberdinetako emakume Sub-Sahararrekin. 9 gaztelaniaz, 1 ingelesez eta 4 frantsesez
Analisia	Erregresio analisi binomial negatiboa. Bizkaian erregistratutako immigranteen portzentaia, langabezia tasa eta aldikotasunaren arabera doituta	Edukiaren analisi kualitatiboa	Edukiaren analisi kualitatiboa

ETHICAL CONSIDERATIONS/KONTSIDERAZIO ETIKOAK

Ethical approval for each of the three studies was obtained from the Ethics Committee for Research Involving Human Subjects of the University of the Basque Country (UPV/EHU) before contacting any participant. These approvals are stated on the committee accords number 66/2015, 72/2016 and 77/2016, respectively.

For the study in chapter 1, after getting ethical clearance from the university committee, written permission and login credentials to access the registration forms and the database were requested to and given by Médicos del Mundo Euskadi direction board. All extracted data were anonymised prior to sharing it with other authors and analysing it. Data from registration forms were counted by the first author in the office of the NGO. No data that could identify any patient was used in the study.

All participants in studies of chapters 2 and 3 were given written and oral information about the project and gave written consent before being interviewed. The first author anonymised the data prior to analysis and pseudonyms have been used to identify the participants in the text. To those participants that requested it, the interview guide was sent in advance.

For the study in chapter 3, all the documents given to the participants (consent form and information letter presenting the study with contact data of the researcher) were given in Spanish, English or French, depending on the participants' preferences. All the information related to the study was also given in their preferred language.

During data collection, all participants were given written and oral information about the goals of the study and gave written consent for participating and being recorded during the interviews. Participants were asked in which language they preferred to be interviewed. In three interviews with women who were recruited in the waiting room of the free clinic, self-provided translators were used. Translators were already accompanying them as they were going to act as such in the medical consultation. Women were first alone when they were explained the goal of the study and asked about whether they wanted to use a translator or not. With the aim of reducing the potential ethical conflicts about confidentiality, translators were informed about the importance of keeping confidentiality and discretion with the information treated during the interview.

1. KAPITULUA/CHAPTER 1

Sarreran deskribatu den bezala, osasun zerbitzuak jasotzeko eskubiderik eza eta honi buruzko informazio falta, immigranteen sarbiderako oztoporik handiena da, batez ere dokumentaziorik gabekoentzat (26). Egoera honek immigranteen osasunean eduki dezakeen eragin negatiboa gutxitzeko helburuarekin, Europako herrialde askotan, dohaineko klinikak daude; bertan, osasun langileek osasun sistema publikotik kanpo dauden pertsonei arreta eskaintzen diete (20,25,26,69).

Horregatik, ikerketa honek, Euskadiko dohaineko klinika bateko kontsulta kopurua kontuan izanez, lege baten eragina aztertu nahi zuen. Denboraldi osoak, 114/2012 Dekretuaren onarpenaren aurreko eta osteko urteak hartzen ditu. Aztertutako dohaineko klinika CASSIN edo Immigranteei osasun eta gizarte arreta eskaintzeko zentroa da (Lehen mailako arreta dohaineko klinika bezala deitua tesian zehar). CASSIN-en arreta jasotzeko baldintzak, osasun sistema publikoan arreta jasotzeko eskakizunak ez betetzea eta 18 urtetik gorakoa izatea dira. Pazienteen gehiengoa, dokumentaziorik gabeko immigranteak dira.

Helburua

Osasun zerbitzu publikoetarako sarbiderako eskakizun legalak zailtzeak, dohaineko kliniketako osasun kontsulta zenbakian gorakada eragingo duelako hipotesian oinarriturik, ikerketa honen helburua 114/2012 Dekretuaren aplikazioak dohaineko klinika bateko kontsulta zenbakian izandako eragina aztertzea izan zen.

Metodologia

Datu bilketa

CASSIN-en eskainitako osasun kontsultetan, pazienteen datu pertsonalak eta medikoak erregistro paperetan apuntatzen dira. Hilabetero, datu hauek erakundeko datu-basera pasatzen dira. 2007ko urtarriletik 2017ko ekainera arte egindako kontsulta kopurua zuzenean erregistro paperetatik zenbatu eta datu-basearen datuekin konparatu zen. Datuen artean desberdintasunak aurkitu zirenean, eskuz jasotako kopurua hartu zen kontuan.

Datu analisia

Datuak, Excel orri batera pasatu ziren, denboraldi osoan emandako kontsulta kopurua hiruhilekotan zatituz. Sexu bakoitzeko pazienteen jatorria eta diagnostikoak analisi deskriptiborako bildu ziren.

Kontsulta kopuruaren joera aztertzeko, denboraldi osoa 2 fasetan zatitu zen: 2007ko urtarriletik 2012ko abendura eta 2013ko urtarriletik 2017ko ekainera. 114/2012 Dekretuaren aplikazioa interbentziotzat hartu zen, interbentzio puntua 2013ko lehenengo hiruhilekoan ezarriz. Dekretua, 2012ko ekainean onartu bazen ere, teorian bere aplikazioa abenduraino atzeratu zen, Auzitegi Konstituzionalak hau aplikatzeko baimena eman zuenean.

Lehenengo denboraldia, interbentzio-aurreko fasea deitua izan zen. Honetan, immigranteen sarbidea arautzeko osasun lege orokorrak eta atzerritarren eskubideei buruzko legeek ezarritako baldintzak aplikatzen ziren (1. Taula ikusi). Interbentzio aldagaia, 0 bezala kodifikatu zen interbentzio-aurreko fasean eta dekretuaren inplementazioaren hiruhilekoan (2013ko lehenengo hiruhilekoa) eta 1 bezala hortik aurrera.

Interbentzio-osteko faseak 114/2012 Dekretuaren inplementazioa egin zen denboraldia barneratzen du. Interbentzio-osteko aldagaia, 0 bezala kodifikatu zen interbentzio-aurreko fasearen azkenengo punturaino eta 1 bezala interbentzioa hasi eta gero (2013ko lehenengo hiruhilekoan).

Datuak, Bizkaian erregistratutako immigranteen portzentaia, langabezi tasa eta aldikotasunaren arabera doitu ziren. Langabezi tasak, ekonomi krisiak dohaineko klinikara heldutako immigranteen kopuruan eduki dezaken eragina adierazteko balio du.
Aldikotasunak, oporraldian (urte bakoitzeko hirugarren hiruhilekoan) gertatutako kontsulten kopuruaren beherakada erakusten du. Aldikotasun faktorea, 1 bezala kodifikatu zen urte bakoitzeko hirugarren hiruhilekoan eta 0 bezala beste hiruhilekoetan.

Datuak, erregresio analisi binomial negatiboa erabiliz analizatu ziren. Analisia, ekuazio honen bitartez adierazi daiteke:

$$Y_t = ß_0 + ß_{1\ \text{interbentzio-aurrekoa}} + ß_{2\ \text{interbentzioa}} + ß_{3\ \text{interbentzio-ostekoa}} + Ɛ$$

Y-k aldagaia adierazten du (osasun kontsulten kopurua)
ß0-k aldagaiaren oinarri-maila adierazten du
ß1-k aldagaiaren joera adierazten du interbentzio-aurreko denboraldirako
ß2-k interbentzio-osteko mailaren aldaketa adierazten du, interbentzioa gertatu eta geroko berehalako eragina irudikatuz
ß3-k interbentzioaren ostean aldagaiaren joeraren aldaketa adierazten du

Kontsulta kopuruari, jarraia denez eta normalitate patroi bat jarraitzen ez duenez, Poisson erregresio modelo bat aplikatu zitzaion. Lehenengo modelo honen analisiak, datuak modelo horretarako egokiak ez zirela adierazi zuen. Horregatik, moldagarriagoa den erregresio binomial negatiboa erabili zen analisia gauzatzeko. Arrisku erlatiboak (RR) eta %95-ko konfiantza tarteak (CI) atera ziren *Stata 13.0 software*-a erabiliz.

Emaitzak

2007ko urtarriletik 2017ko ekaineraino 9,272 osasun kontsulta bete ziren, %77a gizonezkoenak eta %23 emakumezkoenak izan zirelarik. Ia gizonezkoen erdiak eta emakumeen %40ak lehenengo kontsulta jaso zuten. Paziente berrien eta segimenduzko kontsultak egin zituzten pazienteen datu deskriptiboak datu-basetik atera ziren. Guztira, 4,707 pertsonen datu deskriptiboak lortu zirelarik (6. Taula ikusi).

Adin tarteen banaketak, joera desberdinak aurkeztu zituen bi sexuen artean: Gizonen %29a 18 eta 24 urte artekoak ziren, %70a 25 eta 64 urte artekoak eta %1a 65 urtetik gorakoak. Emakumeetan, %15, %81 eta %4 izan ziren, hurrenez hurren (6. Taula).

Jatorrizko eskualdeari begira, gizon eta emakumeen artean, desberdintasun garrantzitsuak aurkitu ziren: gizonen % 54a eta emakumeen %18a Afrikako Iparraldetik etorritakoak ziren. Hala ere, emakumeen %57a eta gizonen %7a Latino Amerikakoak ziren. Ordenan jarrita, gizonen jatorririk prebalenteenak Afrikako Iparraldea, Afrika Sub-Sahararra, Latino Amerika, Europako ekialdea eta Asia izan ziren. Aldiz, emakumeen artean, Latino Amerika, Afrikako Iparraldea, Afrika Sub-Sahararra, Europako ekialdea eta Asia izan ziren (6. Taula).

Emakumeei eta gizonei egindako diagnostikoetan ere desberdintasunak aurkitu ziren: Gizonetan, ordenan, arnas-sistema, digestio-sistema, sistema muskulu-eskeletikoa eta sistema tegumentarioarekin erlazionatutako diagnostikoak izan ziren prebalenteenak. Emakumeetan, ordenan, sistema genitourinarioa, arnas-sistema, digestio-sistema eta sistema muskulu-eskeletikoarekin erlazionatutakoak izan ziren (6. Taula).

6. Taula. 2007ko urtarriletik 2017ko ekaineraino CASSIN-eko pazienteen ezaugarriak eta diagnostikoak (n= 4,707)

	Gizon	Emakume
Guztira	7134	2138
	(%76.94)	(%23.06)
Lehenengo aldikoa	%40.03	%49.58
ESKUALDEAK		
Latino Amerika	%7.04	%56.55
Afrika Iparraldea	%54.34	%18.06
Europako ekialdea	%3.22	%7.32
Asia	%2.65	%0.57
Beste guztiak	%1.67	%0.49
DIAGNOSTIKOAK		
Arnas-sistema	%18.43	%10.10
Digestio-sistema	%14.31	%10.16
Sistema tegumentarioa	%13.08	%6. 57
Sistema muskulu-eskeletikoa	%14.68	%10.53
Sistema genitourinarioa	%2.90	%14.73
Beste batzuk	%36.6%	%47.90

4. Irudia. 2007ko urtarriletik 2017ko ekaineraino CASSIN-eko kontsulta kopuruak, sexuagatik bananduak



Dohaineko klinikaren osasun kontsulten kopuruaren joera

Gizonen kontsulta kopuru totala 7,134 izan zen. 2007ko lehenengo hiruhilekotik 2011ko bigarren hiruhilekora, gizonen kontsulta kopuruak igoera handia eduki zuen; gero, jaitsiera handia eduki zuelarik. Hala ere, berriro ere igoera eman zen interbentzioaren aurreko hiruhilekoan, interbentzioa eta interbentzio-osteko aldietan konstante mantenduz (4. Irudia).

2007ko urtarrilean, gizonen kontsulta kopuruaren oinarri-maila 193.23koa izan zen. Interbentzio-aurreko fasean, hiruhileko batetik bestera %2ko goranzko joera izan zuen gizonen kontsulta kopuruaren mailak, nahiz eta estatistikoki adierazgarria ez izan (RR=1.02; %95 CI=0.99, 1.04). Interbentzioa gertatutako hiruhilekoan, aurreko fasearekiko %40ko kontsulta kopuruaren mailaren igoera eman zen, hau estatistikoki adierazgarria izan zelarik. Hala ere, kontsulta kopuruaren joerak %1ko beherakada eman zuen interbentzio-osteko fasean; nahiz eta estatistikoki adierazgarria izan ez zen (RR=1.01; 95% CI=0.99, 1.03). Datuak, Bizkaian erregistratutako immigranteen portzentaia, langabezia tasa eta aldikotasunaren arabera doitutak izan ziren (7. Taula).

Emakumeen kasuan, kontsulta kopuru totala 2,138 izan zen. Kopurua jaitsiera konstantean egon zen denboraldiaren hasieratik 2011 urtera arte. Egonkortze aldi bat eman zen 2011 eta 2012 urteen artean, gero goranzko joeran finkatu zelarik denboraldiaren amaieraraino (4. Irudia).

Hasierako aldian, emakumeen kontsulta kopuruaren oinarri-maila 44.92koa izan zen. Interbentzio-aurreko fasean, hiruhileko batetik bestera kontsulta kopuruaren mailak %2a jaitsi zuen, hau estatistikoki adierazgarria izanik (RR=0.98; 95% CI=0.95, 1.01). Interbentzioa gertatu osteko hiruhilekoan, interbentzio-aurreko fasearekiko %187ko kontsulta kopuruaren mailaren igoera eman zen. Interbentzio-osteko fasean, kontsulta kopuruaren joerak estatistikoki ez adierazgarria izan zen hiruhileko bakoitzeko %1ko beherakada eman zuen (RR=0.99; 95% CI=0.96, 1.04). Emaitzak, Bizkaian erregistratutako immigranteen portzentaia, langabezia tasa eta aldikotasunaren arabera doitutak izan ziren (7. Taula).

7. Taula. Segmentatutako erregresio analisi binomial negatiboaren emaitzak 2007ko urtarriletik 2017ko ekaineraino CASSIN-eko kontsulta kopuruenak, arrisku erlatiboa bezala adieraziak (%95eko konfiantza tarteak parentesi artean) eta sexuaren arabera bereizita

	Oinarriko maila	Interbentzio aurrekoa	Interbentzio	Interbentzio ostekoa
Gizon	193.23 (147.58, 253.01)	0.99 (0.98, 1.02)	0.65 (0.46, 0.91)	1.01 (0.99, 1.02)
	205.15 (130.37, 322.87)[a]	1.02 (0.99, 1.04) [a]	0.60 (0.42, 0.84) [a]	1.01 (0.99, 1.03) [a]
Emakume	44.92 (34.35, 58.74)	0.98 (0.96, 1.00)	2.64 (1.78, 3.91)	1.00 (0.99, 1.02)
	56.99 (30.18, 107.64)[a]	0.98 (0.95, 1.01) [a]	2.87 (1.80, 4.58) [a]	0.99 (0.96, 1.04) [a]

[a] Bizkaian erregistratutako immigranteen portzentaia, langabezia tasa eta aldikotasunaren arabera doituta

Discussion

The study's findings do not support a clear relationship between the implementation of the Basque Decree 114/2012 and an increase in the attendance by immigrant population at a free clinic in the studied period, as other factors besides the policy change could also help explaining the found trends.

Different trends of attendance as well as gender and country of origin patterns between men and women were observed over the whole period. In addition, an overall slight decrease in the number of consultations for women and an increase for men was found after the application of the new Decree, though being statistically not significant in either of the trends. Because of the lack of data on the numbers of undocumented immigrants, demographic reasons explaining these trends could not be contrasted.

In general, a high number of male consultations compared to women were observed, representing 76.94% of the total. This pattern has also been reported in a study conducted in five social-based free clinics in Paris in 2008, where 65% of the total patients were men (24). However, in a free clinic in Berlin 60% of attending patients were women, but the clinic was quite specialised in prenatal care (25,26). In both Paris and Berlin free clinics, patients were mainly undocumented (24,26).

The reasons for the excess number of male consultations in our study are not clear. From 2006 to 2018, the proportion between the sexes among registered immigrants in Bilbao, Biscay and Basque Country as a whole is close to 50% (61), so the difference in attendance at CASSIN could not be explained by the highest presence of male registered

immigrants. Moreover, the majority of patients that arrive to CASSIN were not included in the city council register. However, the data on country of origin from the municipality register of Bilbao coincides with those from the free clinic patients: in 2017, 69.83% of registered immigrants from Maghreb were men while 62.35% of the immigrants originally from Latin America were women (62).

Another explanation regarding the lower number of female patients arriving at CASSIN could be related to the existence in Bilbao of three other free clinics, exclusively for sexual and reproductive health, where all women, regardless of their legal status can attend. For instance, in 2014, 517 immigrant women attended the most popular clinic among immigrants. There is not available data for the rest of the clinics. Limitation on the lack of data about how many undocumented immigrant women and men live in Bilbao affects negatively the find of a possible explanation of the low use of the free clinic for women. Data from other social resources like sheltering or feeding centres should be compiled in order to contrast if women make less use of other resources allocated for undocumented immigrants.

After the intervention, a not significant small decrease in the number of attendances at the free clinic among men was observed. This trend could reflect that not many undocumented immigrant men left the region because of lack of employment due to the economic crisis. Related to this, a slight decrease of registered immigrant men occurred from 2012 to 2015 in the Basque Country, even if it has maintained an increasing trend after it. In the case of women, an increasing trend in the number of registered immigrant women in the Basque Country has been maintained year by year (61). Women could have also remained in the region, or an influx of immigrant women coming from other Spanish regions could also have happened, even if they did not attend CASSIN.

Due to the high number of consultations attended per year, free clinics are important actors in ensuring the right to health for those who are at risk of social exclusion, such as undocumented immigrants. Furthermore, they are able to identify cases which could become a public health threat if they are left untreated.

Limitations of the study

The new policy implementation could not be the only explanation for the trend changes in the number of consultations. The interaction with other not captured external factors that also happened during the same period, such as the influence of the economic crisis or the uncertainty on the entitlement conditions during the policy change process, may also have influenced our outcome. Due to the absence of the crucial demographic data on the number of undocumented immigrants during the studied period, its potential impact on the results could not be taken into consideration.

2. KAPITULUA/CHAPTER 2

Emakume immigranteek Espainian, bertakoekin konparaturik, ugalketa eredu desberdinak aurkezten dituzte; ondorengo gehiago, lehenengo haurdunaldian adin txikiagoa eta haurdunaldiaren borondatezko etendura gehiago dauzkatelarik (70). Immigranteen sexu eta ugalketa jarrerak, besteak beste, faktore hauen menpe daudela azaldu da: jatorrizko kulturan sexuak eta ugalketak duten garrantzia, migrazio prozesua, bizi baldintzak, hezkuntza maila eta egoera legala (33,71).

2/2010 Lege Organikoa, Martxoak 3ko legean adierazten den bezala (72), sexu eta ugalketa zerbitzuetarako sarbidea, beste osasun zerbitzuen sarbiderako baldintza berdinak ditu. Horregatik, RDL 16/2012 onartu zenean, dokumentaziorik gabeko emakume immigranteentzako sexu eta ugalketa zerbitzuetarako sarbidea ere murriztu zen, besteak beste, hauen antisorgailu, haurdunaldiaren borondatezko etendura eta prebentzio zerbitzuak jasotzeko posibilitatea deuseztatuz. Are gehiago, gizarte erakunde baten txostenak, legearen onarpenaren osteko urteetan, osasun sistema publikoan hainbat emakume haurdunei arreta ukatu zitzaiela adierazten du (49).

Legea edozein izan bada ere, emakume haurdunen, erditzearen edo erditze osteko zainketak betiere osasun sistema publikoak bermatu ditu. Hala ere, eskubidea izateaz gain, emakume immigranteak zainketak jasotzeko dituzten oztopoak identifikatu nahian, ikerketa kualitatibo bat garatu zen dohaineko kliniketako osasun langileen pertzepzioa kontuan hartuz. Parte-hartzaile hauek nahita aukeratu ziren, emakume immigranteen osasun egoera gertutik ezagutzen dutelako, haiei eskainiko osasun arreta dela eta.

Helburua

Emakume immigranteen Euskadiko osasun sistema publikorako eta sexu eta ugalketa zerbitzuetarako sarbidean dituzten oztopoak eta faktore bideratzaileak ezagutzea, dohaineko kliniketan lan egiten duten osasun langileen pertzepzioa aztertuz.

Metodologia

Parte-hartzaileak

Lagina 11 informatzailez osaturik egon zen, guztiak Euskadiko dohaineko klinikaren batean lan egiten duten osasun langileak zirelarik (medikuak, erizainak edo psikologoak). Hauetako hamar emakumeak ziren. Era berean, bederatzik osasun sistema publikoan lanean zeuden edo egon ziren datu bilketa egin zen momentuan. Parte-hartzaileen ezaugarriak, 8. taulan adierazten dira.

Lehenengo, dohaineko kliniken identifikazio, bertaratzea eta pertsona arduradunekin harremana egin zen. Hauei ikerketa aurkeztu zitzaien klinikan lan egiten zuten osasun langileei parte hartzeko aukera eman ziezaieten. Parte hartzea erabaki zuten osasun langileei, informazio gehiago jasotzeko eta elkarrizketarako data eta lekua zehazteko kontaktua eskaini zitzaien. Hala eskatu zutenei, elkarrizketa gida aurrez bidali zitzaien. Proiektuaren aurkezpen gutuna 1. eranskinean aurkitu daiteke.

8. Taula. 2. ikerketako parte-hartzaileen ezaugarriak

	Lehen mailako arretadohaineko klinika	**Sexu eta ugalketa osasun dohaineko klinika**		
		1. zentroa	**2. zentroa**	**3. zentroa**
Lanbidea	(4) medikua (1) erizaina (1) emagina	(1) erizaina (1) psikologoa	(1) medikua (1) erizaina	(1) medikua
Osasun sistema publikoan lan egin du?	(4) medikua (2) erizaina		(1) medikua	(1) medikua
Esperientzia urteak dohaineko klinikan	(3) +10 (1) 2 (1) 4 (1) 9	(2) +10	(1) 1 (1) +10	(1) 8

Datu bilketa

2015. urteko iraila eta abenduaren artean bildu ziren datuak, Bilboko hirian kokaturiko lau dohaineko kliniketan. Datuak jasotzeko, elkarrizketa sakonak egin ziren. Hauek gidatzeko, elkarrizketa gida erdi-egituratuta erabili zen (2. eranskinean). Datuak biltzeko prozesuan zehar gidan aldaketak egin ziren, agertzen ziren ideia eta kontzeptu interesgarriak hurrengo elkarrizketetan jardun ahal izateko. Datu bilketa bukatutzat eman zen elkarrizketetan behin eta berriro errepikakorra zen informazioa agertu zenean.

Parte-hartzaile bakoitzeko datu sozio-demografikoak bildu ziren. Gero, immigranteen arretan izandako esperientziari buruzko galderak egin zitzaien. Azkenik, immigranteak osasun sistemarako sarbidean eduki ditzaketen oztopo eta bideratzaileei buruz galdetu zitzaien. Elkarrizketa hasi aurretik, elkarrizketak grabatuak izateko hitzezko eta idatzizko baimena eman zuten. Elkarrizketek, 35 eta 70 minutu artean iraun zuten eta gaztelaniaz egin ziren.

Datu analisia

Datuen analisia, edukiaren analisi kualitatiboa metodologia erabiliz egin zen. Metodologia hau, eduki manifestuaren deskribapen sistematikoan eta eduki latentearen interpretazioan

oinarritzen da. Graneheimek eta Lundmanek emandako gidalerroak jarraituz gauzatu zen (73). Ikerketa honetan, eduki manifestua baino ez zen analizatu.

Elkarrizketa guztiak audioan grabatuta eta transkribatuak izan ziren. Analisia, edukiaren irakurketa arretatsuarekin hasi zen. Transkripzioak *Open Code 4.03 Qualitative data Analysis* (74) programara inportatu ziren kodifikazio prozesua egiteko. Lehenengo, esanahi unitateak, edo ikerketa galderari erantzuna ematen dioten testuaren parteak, identifikatu ziren eta hauetatik, esanahi unitate laburtuak eratu ziren. Hauen laburpenetik, kodeak atera ziren. Kodeak, era berean, aztertuak eta kategoriatan klasifikatuak izan ziren.

Emaitzak

Analisia egin eta gero, emakume immigranteek Euskadiko osasun sistema publikorako eta sexu eta ugalketa osasun zerbitzuetarako sarbidean topatzen dituzten oztopoak eta bideragarriak lau kategoriatan sailkatu ziren: 1) immigranteen ezaugarri pertsonalak, haien jatorriarekin estu erlazionaturik daudenak; 2) osasun zentroetako langileen immigranteenganako jarrera; 3) osasun sistemaren ezaugarriak eta funtzionamendua eta 4) eskakizun legalak.

Esaidazu nongoa zaren eta osasun sisteman sartzeko dituzun aukerak esango dizkizut

Lehenengo kategoria emakumeen ezaugarrietan oinarritzen da. Adibidez, Latino Amerikakoa izatea, faktore bideratzailea zela adierazi zuten, hizkuntza berdina eta antzerako kultura edukitzeagatik. Gainera, haien eskubideak eta osasun sistema hobeto ezagutzen dituztela esan zuten. Faktore hauek guztiak, osasun sistemara hurbilketa errazagoa egiten dutela adierazi zuten. Lehen mailako arreta eskaintzen duen dohaineko klinikako mediku batek, honi buruz, hauxe zioen:

Sarbidea, jatorria eta hizkuntzarekin erlazionaturik dago. Hizkuntza berdina hitz eginda, haien beharrak adierazteko eta hauek ulertuak izateko askoz ere errazago daukate… (Medikua, LMA dohaineko klinika)

Aldiz, afrikarra izatea, sarbidean negatiboki eragin dezakeela adierazi zuten gaztelaniaz hitz egiteko zailtasunagatik, kulturen arteko desberdintasun handiagatik eta eskubideen ezjakintasunagatik. Sexu eta ugalketa osasun (SUO) dohaineko klinikako erizain batek zioen bezala:

Emakume latinoek ez dute sartzeko arazorik. Afrikarrak, ordea, pilo bat! Lehenengoz, (administratiboek) ez dituztelako entzun nahi ingelesez edo nigeriarrez hitz egiten doazenean… eta horrela, ez dira osasun kontsultetara heltzen (Erizaina, SUO dohaineko klinika)

Osasun langileek, enplegatua egotea, sarbiderako bai oztopoa zein bideratzailea izan daitekeela identifikatu zuten. Alde batetik, lana edukitzeak zerbitzuak eta tratamenduak

ordaintzeko ahalmena handitzen duelako. Bestetik, betetzen dituzten lanen ezegonkortasunak, osasun zentroetara joateko ahalmena gutxitu dezakeelako, enplegatzaileek ipini ditzaketen oztopoak direla eta.

Emakume immigranteak, eta baita bertakoak ere, genero indarkeria egoeratan daudenean, osasun zentroetara hurbiltzeko autonomia gutxitua daukatela adierazi zuten. Lehenengo, erasotzaileek espresuki debekatu dezaketelako. Bigarren, haiek ere osasun langileek genero indarkeriako biktima direla jakin dezatela ekidin nahi dutelako. Sexu eta ugalketa osasuna eskaintzen duen dohaineko klinika bateko erizain batek, horrela azaldu zuen:

Genero indarkeria sufritzen duten emakumeak, etengabeko beldurrean bizi dira. Kasu batzuetan, haien bikotekideek zuzenean mehatxatzen dituzte osasun zentroetara ez joateko, hauek ere gertatzen ari dena ezkutuan gera dadila nahi dutelako. Gainera, emakumeak ere haien burua biktima bezala onartzeko arazoak dituzte. Badakite, behin pausu hori emanda egoeratik irtetzeko esfortzuak egin behar izango dituztela, eta guztiak ez daude horretarako prest (Erizaina, SUO dohaineko klinika)

Euskadin luze bizi izateak eta sare sozial pertsonal zabala edukitzeak, osasun zerbitzuetara sartzeko faktore bideragarriak zirela identifikatu zuten, eskuragai dauden zerbitzu publikoak eta gizarte erakundeak hobeto ezagutzea eragiten dutelako.

Behin osasun kontsultan, dena ondo doa. Arazoak, administratiboekin dituzte gehienbat

Bigarren kategorian, profesionalak immigranteei arreta emateko daukaten prestutasunak hauen sarbidean daukan eragina adierazten du. Osasun sistema publikoko langileek lan-karga handiak dituztela eta immigranteen arreta haien eguneroko ohikeriaren kanpokoa dela uzte zuten parte-hartzaileek. Hori dela eta, immigranteei arreta emateko prestutasuna nahiko ahula dela zioten.

Immigranteei edo bertoko bati arreta ematea ez da berdina. Sistema publikoan lan egiten dutenek lan-karga handia eta lan ohitura finkoak dituzte. Ohitura hauen aldaketak tentsioak ekar ditzake eta horregatik, immigranteekiko jarrera desberdina garatu dezakete (Medikua, LMA dohaineko klinika)

Parte-hartzaileek, administratiboak immigranteen osasun zerbitzuetarako sarbiderako oztoporik handiena direla deskribatu zuten, immigranteei arreta pobrea eskaini eta haien eskubideei buruzko informazioa faltan dutela argudiatuz. Immigranteekiko osasun langileen arreta, aldiz, egokiagoa zela deskribatu zuten.

Behin osasun kontsultan daudela, dena ondo doa. Baina administratiboenagana doazenean edozein gauza eskatzera, tontoak izango balira bezala tratatzen dituztela diote (emakume immigranteek) (Erizaina, SUO dohaineko klinika)

Osasun zentroetan immigranteen osasun egoera zaurgarriarekin sentsibilizatutako profesionalak aurkitzea, hauen sarbidea errazten duen faktore bat dela adierazi zuten

dohaineko kliniketako osasun langileek, legearen eskakizunak betetzen ez dituzten pertsonen sarbidea ahalbidetzen dutelako:

Immigranteen bazterketa bidezkoa ez dela pentsatzen duten profesionalek, batzuetan zuzenean osasun kontsultetara pasatzen dituzte (immigranteak) (Erizaina, SUO dohaineko klinika)

Osasun sistema zurruna eta pasiboa

Hirugarren kategoriak, informazio faltak eta osasun sistemaren kudeaketak sarbidean nola eragiten duten aurkezten du. Parte-hartzaileek, osasun sistemak sarbiderako informazioa osasun zentroetan baino eskaintzen ez duela deskribatu zuten. Gainera, administratiboak, informazioa eskaintzeko arduradunak direnak, immigranteen osasun eskubideei buruzko informazioa guztiz ezagutzen ez dutela zioten. Ondorioz, populazio zaurgarriek, immigranteak eta genero indarkeria egoeran dauden emakumeak barne, sarritan gizarte erakundeetara jotzen dutela informazioa lortzeko, osasun zentroetara ez joatearren.

Dokumentaziorik gabekoak osasun sistematik kanpo daude. Beste talde zaurgarriak ere badaude: prostituzioan jarduten direnak, trafikatuak direnak edo genero indarkeria sufritzen dutenak. Hauek, ez dira berez osasun zentroetara joango, nahiz eta arreta behar izan. Baina gizarte erakundeetara badatoz informazio eta arreta bila. Osasun sistema modu desberdin batean hauetara hurbildu beharko litzateke (Medikua, LMA dohaineko klinika)

Osasun zentroetako pertsonal faltak eta paziente bakoitzari arreta emateko denbora eskasak, emakumeak haien osasunari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena gutxitzen duela adierazi zuten. Dohaineko klinikak, aho biko osasun baliabide bezala deskribatu zuten: Alde batetik, immigranteen osasuna sustatzen dutelako. Bestetik, osasun agintariei ziurtatzen dietelako, osasun publiko arazoak bihurtu daitezkeen kasuak identifikatuak izango direla. Azken honek, immigranteen osasun zerbitzuetarako sarbidearen onarpenean, osasun sistema publikoaren jarrera pasiboa indartzen duelarik. LMA-rako dohaineko klinikan lan egiten duten erizain eta mediku bik esan zuten bezala:

Dohaineko klinikak ez lirateke existitu behar, pertsona guztiak osasun sistema publikoan arreta jaso beharko luketelako. Hori posiblea den arte, beharrezko baliabideak dira, baina arriskutsuak aldi berean, osasun agintariei lasaitasuna ematen dielako pertsona hauek osasun zerbitzu bat jasotzen ari direla jakiteak (Erizaina, LMA dohaineko klinika)

Uste dut dohaineko klinikek, immigranteen osasun beharrak asetzen dituztela, baina baliabide arriskutsuak dira, osasun sistema paraleloa eratzen dutelako. Noski, immigranteen osasuna hobetzen dute baina bakarrik baliagarriak izango dira informazioa eman eta intzidentzia politikoa egiteko ere balio duten bitartean (Medikua, LMA dohaineko klinika)

Eskakizun legalak betetzen ez badituzu, kanpoan geratzen zara. Legea, legea da

Parte-hartzaile guztiek, eskakizun legalak immigranteen sarbiderako oztoporik garrantzitsuenak direla deskribatu zuten, haien eskubideen ez jakintzak indarturik. Batzuek identifikatu zuten eskakizun legalen betetzea, errolda edukitzearekin estu erlazionaturik dagoena, immigranteentzako zailak dela, batez ere dokumentaziorik gabekoentzat.

Zentroetara heltzerakoan, errolda edo dirua eskatzen diete. Ez badaukate, hortxe geratzen dira, arretarik gabe. Immigrante askok ez dute erroldarik, batez ere dokumentaziorik gabekoak, herriz-herri asko mugitzen dira eta (Medikua, LMA dohaineko klinika)

Gainera, sarbiderako, dokumentaziorik gabekoak egoera bereziki zaurgarrian daudela kontsideratu zuten, gobernuak haien legez kanpoko egoera ezagutzeak ekar dezakeen ondorioen beldurragatik:

Immigranteek ez dute haien eskubideei eta osasun sistemari buruzko informazio askorik. Gainera, dokumentaziorik gabekoak direnean, normalean ez dute hizkuntza ezagutzen eta osasun zentroetara hurbiltzea beldur dira, immigrazio erakundeekin arazoak ez edukitzeko… (Erizaina, LMA dohaineko klinika)

Azkenez, parte-hartzaileek 2012ko legearen aldaketak immigranteen eskubideei buruzko informazioaren nahastea eragin zuela adierazi zuten, bai immigranteen zein osasun zentroetako langileen artean. Bestalde, immigranteen artean, jasotako osasun zerbitzuengatik ordaindu behar izateko beldurra handitu zuela eta eskubideen urraketa kasuen kopuruak ere gora egin zuela adierazi zuten.

Legearen aldaketa eman zenetik, emakume gehiago datoz dohaineko klinikara, osasun sistema ezagutzen ez dutelako eta haien eskubideengatik galdetzeko arazoak dituztelako. Gainera, behe mailakoak izango balira bezala sentitzen dira askotan, bereziki dokumentaziorik gabekoak direnean (Erizaina, SUO dohaineko klinika)

Faktore bideratzaile bezala, informazio faltari aurre egiteko, dohaineko klinikek eskubideei buruzko informazioa eta aholkularitza legala eskaintzen egiten duten lana azpimarratu zuten.

Discussion

The results of this study indicate that there is a considerable number of barriers and some facilitators in the access of immigrant women to healthcare and SRH services in the Basque Country. The conceptualization of person-centred access proposed by Levesque allows analysing the factors that influence the access at individual level, and to classify our results on the five dimensions for an appropriate healthcare (28):

Approachability

Same as presented in the literature, our study identified that the social and cultural constructions of health and illness of the women care-seekers influence the ability to perceive the need for healthcare attention and the approachability to healthcare services (75,76). In addition, the passivity of the healthcare system that did not make any effort to do community outreach work outside the healthcare centres, reinforces the law of the inverse care, which states that the groups of population having biggest need for healthcare attention are the ones who receive it the less (29).

Acceptability

Coinciding with other studies, fearing legal consequences for being identified as undocumented immigrant (20,77) and lack of knowledge on their rights and the functioning of the health system, were recognized as important access barriers in this study (21). Having a large social network and time of residence in the host country (21,78) and having legal counselling (20) acted as facilitators.

As in our study, lack of knowledge on local language has been frequently described as one of the biggest personal barriers for access and for communication with staff at the health centres (21,70,79). Even though, existing studies usually problematize the lack of language knowledge of the care-seekers, and not of the care providers (75). The utilization of appropriate translators, same as cultural mediators, could eliminate these barriers (75). However, when "formal" translators are not provided within the system, the use of minors and relatives as "informal" translators in the consultations, especially when SRH issues are discussed, may bring ethical conflicts (4).

Availability

For our participants, not fulfilling the legal requirements for accessing was considered the biggest barrier for access of immigrant populations (29). Immigration laws ruling the residence permit and nationalization process give preference to Latin American immigrants than to other origin immigrants (80), which also facilitates their access to healthcare services.

As the emergency unit is legally recognized to be of universal access, it is the most utilized healthcare level by the immigrant population and is considered an effective way to enter healthcare services (11,81). However, limiting immigrants' healthcare attention to emergencies entails higher risk for public health, and is more costly than attending them in primary health level and reinforcing prevention measures (44).

Our study coincides with other studies in affirming that to be in prostitution and other gender based violence situations, which are more prevalent among immigrant women,

hinders their access as it limits their autonomy and ability to reach healthcare attention (19,82).

Levesque states that access to healthcare services of less technical quality and to those located in a single place, as free clinics, do not represent a real and equitable access because people have less possibilities to reach them and to choose if they are the services they need (28). However, our participants, same as in other studies, considered the free clinics as guarantors of the health and healthcare access of immigrant people (20,21,25), due to the fact that they provided not only healthcare services, but also legal attention and political advocacy. However, they were also presented as risky resources, since they can be used by the policy makers as a justification for maintaining the exclusion of immigrants from the public health care system.

Affordability

Healthcare services in Spain are provided free of change, even if the prescribed medication is only subsidized in part. However, due to the policy change in 2012, healthcare services should be billed to those accessing without fulfilling legal requirements, besides needing to pay the 100% of the cost of medicines (43,50). That is why, the fear to be billed acts as a barrier on the decision to access, especially for undocumented immigrants (77).

Having a job was considered both a facilitator and a barrier on the access. In the literature, as in our study, domestic workers are considered to be in a vulnerable situation because they suffer from constraints of their legally recognized rights (21). The greater social discrimination of African immigrants hinders their labour integration and in consequence, the regularization of their administrative status becomes more difficult than for immigrants from other origins (80).

Appropriateness

Participants considered that the attitude of healthcare professionals towards immigrants was better in comparison to administrative staff's. As it also has been stated in other studies, this statement can hide certain corporate defence (19).

The excessive workload and the small number of administrative and healthcare staff, besides their limited predisposition and prejudices on immigrants, hinder attention to cultural diversity and prevents offering care of good quality and person-centred (38,75,83). However, finding professionals who are sensitized with the healthcare exclusion situation of immigrant population is considered a key factor to facilitate their access (21).

Limitations of the study

When doing the first interviews, the general aim of the study was focused on the access of immigrant women to SRH services, so the questions were focused on access to them. However, as the participants were answering as referring to both general and SRH services, the aim was broaden for covering both levels of attention.

Another limitation of this study is that it explores the barriers and facilitators of access not directly from the experiences of immigrant women or from the perspective of the staff at the health centres. However, this study was the first one done in the thesis, so we considered that it was easier to start with healthcare professionals and then, to move to explore the experiences of women in the following study. We decided to consider the perception of healthcare professionals working at the free clinics due to their experience on providing healthcare to immigrants, so having knowledge on the immigrants' social and healthcare situation. Moreover, many of the interviewed participants actually work or had worked at the public healthcare system (see Table 8).

3. KAPITULUA/CHAPTER 3

Euskadiko testuinguruan, Afrika Sub-Sahararreko emakumeak osasun sistemarako sarbidean oztoporik gehien dituzten immigranteak direla aurkitu da (84). Horregatik, hirugarren ikerketa honetan emakume immigrante hauek dituzten oztopoak aztertu nahi izan ziren.

Eskakizun legalez gain, osasun sistemaren antolaketa, osasun zentroetako langileen jarrera eta immigranteen ezaugarriak, hauen sarbidean eragiten dute (37,84). Gainera, immigranteen sarbidea eragozten duten faktoreen artean, arrazismo estrukturala ere aurkitu daiteke (85). Arrazismoa, osasunaren faktore determinatzailea da, osasun adierazleetan negatiboki eragiten duena (86,87). Bereziki populazio zaurgarrietan eragiten du, aborigenak edo immigranteak bezala, eta batez ere, *"Euro-zuritasuna"*-ren baloreek menderatzen duten gizarteetan ematen da (88,89).

Arrazismoaren eragina osasun adierazleetan eta osasun zerbitzuetarako sarbidean, Estatu Batuetan zabalki ikertua izan da (86,87). Ikerketa hauek dioten bezala, pertsona beltzek osasun adierazle txarragoak edukitzeko arrazoien artekoa, osasun langileek diagnostikatzerakoan eta tratamendua ipintzerakoan daukaten sesgo kliniko arrazista da (90). Europan, Ingalaterran egindako ikerketa batek aurkitu zuen bezala, beltzek eta gutxiengo etnikoek osasun adierazle txarragoak eta osasun zerbitzuetarako sarbidean oztopo gehiago zeuzkaten. Bide batez, tratamendurako posibilitate gutxiago eta bertakoak baino modu desberdinean tratatuak izan zirenaren pertzepzioa zeukaten (91). Praktika arrazista hauek, ez daude osasun langileen ikuspuntu arrazistan oinarrituta bakarrik, gizartean, osasun sisteman barne, erroturik dagoen arrazismoan baino (92).

Helburua

Euskadiko osasun sistemarako sarbidean eta erabileran, emakume immigrante Sub-Sahararren pertzepzioa eta esperientziak aztertu.

Metodologia

Parte-hartzaileak

Afrika Sub-Sahararreko zortzi herrialdetatik datozen hamalau emakume elkarrizketatu ziren, Euskadiko osasun sistema publikoa erabili dutenak. Errekrutatzea hiru modutan egin nuen: Lehenengo, lehen mailako arreta dohaineko klinikaren itxaron gelara heltzen ziren emakumeei ikerketan parte hartzea eskaini zitzaien. Bigarren, immigranteekin lan egiten duten gizarte erakundeei ikerketa aurkeztu zitzaien haien erabiltzaileen artean parte hartzeko aukera eskaini zezaten. Azkenez, erakunde hauetan lanean zeuden emakume Sub-Sahararrei ere parte hartzeko aukera eman zitzaien.

Hamalau parte-hartzailetik, lau dokumentaziorik gabekoak ziren elkarrizketa egiteko momentuan. Beste hamarretatik, lau dokumentaziorik gabekoak izan ziren noizbait. Parte-hartzaileen datu soziodemografikoak eta ezaugarriak, 9. Taulan adierazten dira.

9. Taula. 3. ikerketako parte-hartzaileen ezaugarriak

Migrazio estatusa	Dokumentazioarekin (10). Hauetatik, dokumentaziorik gabekoak izan dira (4)	Dokumentaziorik gabekoak (4)
Jatorrizko herrialdea	Cameroon Guinea Bissau (2) Senegal Angola (3) Central African Republic Democratic Republic of Congo Gambia	Democratic Republic of Congo (2) Nigeria Cameroon
Egoitza-baimena mota	Senarraren bitartez etorritakoak (4) Asilo-eskatzaileak (2) Besteak (4)	Ez dute (4)
Osasun sistemaren erabilera	Beharrezkoa kontsideratzen dutenean (10)	Behin (1) 2 alditan (2) 3 alditan (1)
Beste osasun baliabideen erabilera	Dohaineko klinika, osasun txartela eduki aurretik (2) Osasun zerbitzu pribatuak (1)	Dohaineko klinika (4)
Osasun txartelaren edukitzea	10	Ez dute (4)
Adina	25 - 35 (3) 36 - 60 (6) 60 baino gehiago (1)	25 - 35 (3) 36 - 60 (1)
Elkarrizketan erabilitako hizkuntza	Gaztelania (9) Frantsesa (1)	Frantsesa (2) Ingelesa (1) Swahili (itzultzailearekin) (1)
Euskadin egondako denbora	6 hilabete baino gutxiago (1) 6 hilabete – urte bat (1) 1-5 urte (2) 5 urte baino gehiago (6)	6 hilabete baino gutxiago (2) 6 hilabete – urte bat (2) 1-5 urte 5 urte baino gehiago
Enplegua	Lanean (6)	Ez dute (4)

Datu bilketa

2016ko ekainaren eta 2017ko urriaren artean egin ziren elkarrizketak. Gida erdi egituratuta erabili zen, agertutako gaia interesgarriak hurrengo elkarrizketan ere jardun ahal izateko. Elkarrizketak, osasun sisteman eduki dituzten esperientziari buruzko galdera ireki batekin hasi ziren. Legeen ezaguerak, bertako hizkuntza ez menperatzeak, dokumentaziorik gabekoa izateak eta beste faktore batzuk sarbidean eduki dezaketen eraginari buruz galdetu zitzaien. Azkenez, gizartea, osasun sistema eta arrazismoaren arteko erlazioari buruz galdetu zitzaien.

Elkarrizketak 25-70 minutukoak izan ziren. Hauetako bederatzi gaztelaniaz egin ziren, bat ingelesez, hiru frantsesez eta bat swahili eta frantsesez. Bi alditan, parte-hartzaileen lehentasuna zela eta, frantsesetik gaztelaniarako itzultzaileak erabili ziren. Kasu batean, itzulpena erabili zen swahilitik frantsesera. Itzultzaile guztiak, parte-hartzaileek beraiek eskainitakoak izan ziren.

Datu analisia

Elkarrizketa guztiak transkribatu eta zehaztasuna egiaztatzeko, errepasatu ziren. Gaztelaniaz eta ingelesez egindakoak, hitzez-hitz transkribatu ziren eta frantsesez egindakoak, gaztelaniara itzuli ziren transkribatzerako momentuan. Testu guztiak *Open Code 4.03 Qualitative data analysis* (74) programan sartu ziren, informazioaren egituraketa eta kodifikazioa errazteko. Datuak, bi modu desberdinetan analizatu ziren:

Lehenengo, datuen analisia, analisi tematikoa metodologia jarraituz egin zen (93), Steven Lukes-en gizarte erlazioetako boterearen analisia jarraituz (94) (3. Kutxa). Teoria honen erabilera, Watters-ek osasun zerbitzuetarako sarbidea eta Lukes-en bi lehenengo botere dimentsioen artean egindako erlazioan oinarritzen zen (54). Tesirako egindako analisian, Lukes-en hirugarren dimentsioa ere barneratu zen.

Transkripzioetan, esanahi unitateak identifikatu ziren, ikerketa galderarekin erlazionatutako informazio zatiak direlarik. Hauek, kodetan laburtu ziren eta kodeak, Lukes-ek ezarritako hiru botere dimentsioetan oinarrituz sailkatu ziren, kode taldeak eratuz. Kode talde bakoitza sakonago aztertu zen, hiru tema sortuz. Tema bakoitzaren barruan, azpi-temak garatu genituen, hauen barneko informazioa antolatzeko helburuarekin.

Bigarren, behin datu guztiak tema eta azpi-tematan sailkaturik, metodologia kualitatiboak ahalbidetzen duen eraldatzea dela eta, kode guztiak berrantolatuak izan ziren, edukiaren analisi kualitatiboa metodologia jarraituz (73). Hortik, hiru kategoria garatu ziren.

3. Kutxa. Lukes-en gizarte erlazioetako boterearen analisia eta gaiarekiko erlazioa

Lukes-en gizarte erlazioetako boterearen ikuspuntua honakoa da: Norbaitek beste baten gaineko boterea gauzatzen du, lehenengoak bigarrenaren interesen kontra doan jarrera daukanean (94,95). Lukes-en arabera, botere mota honek, hiru dimentsio ditu:

Lehenengo dimentsioan, boterea era aktibo eta nahitasunez gauzatzen da (95) eta erabakiak hartzeko prozesutan oinarritzen da (94). Testuko sarbiderako legeen eraginari lotutako parteak, dimentsio honetan sartu ziren.

Bigarren dimentsioan, gizarte baloreak, balore politikoak eta erakunde-praktikak eraldatzen dira boterean dauden gizarte-taldeen interesak babesteko (94). Osasun sistemarekin eta langileekin izandako elkarrekintzatik sortatuko oztopo eta bideratzaileak dimentsio honetan sailkatu ziren.

Hirugarren dimentsioa informazioaren kontrolarekin eta sozializazio prozesuekin estu erlazionaturik dago eta gizartean boterean dauden gizarte-taldeen praktikak barneratzen ditu (94). Dimentsio honetan, arrazismoagatik eta dokumentaziorik gabekoak izateagatik parte-hartzaileek adierazitako oztopoak sailkatu ziren.

Emaitzak

Hirugarren ikerketan, parte-hartzaileek sarbiderako oztopo estrukturalak eta hauei aurre egiteko bideratzaile indibidualak aurkeztu zituzten. Kategoriek, emakume immigranteak osasun zentroetara hurbiltzeko edo bueltatzeko adierazi zituzten oztopoak eta bideratzaileak biltzen dituzte. Lehenengo kategoria, *Immigranteentzako lagunkoia ez den osasun sistemara hurbiltzeko beldurretan*, sarbidea oztopatu dezaketen estatus legalari eta sozialari lotutako faktoreak barnebiltzen ditu. Bigarrenak, *Arretan, profesionalek ezartzen dituzte komunikazio arauak*, komunikazioaren papera osasun zerbitzuetarako sarbidean aurkezten du. Hirugarrenak, *Arreta desberdindua jasotzea: arrazismoa edo zorte txarra?*, beltza eta immigrantea izateak arreta jasotzerakoan duen eragina aztertzen du.

Immigranteentzako lagunkoia ez den osasun sistemara hurbiltzeko beldurretan

Lehenengo kategoriak, beldurra eta informazio faltak sarbidean daukaten eragina deskribatzen du, batez ere dokumentaziorik gabeko immigranteetan eragiten dutelarik. Sarbidea arautzen duten legeei eta sarbiderako prozesuei buruzko ezaguera ezak, immigranteak osasun zentroetara ez hurbiltzea eragiten duela adierazi zuten parte-hartzaileek. Aldiz, osasun txartela edukitzeak, eskubideak erabiltzeko laguntza kontsideratu zuten. Tamyk, dokumentaziorik gabeko parte-hartzaile batek esan zuen bezala:

Txartelarekin, ez dago arazo gehiagorik. Hizkuntza ondo menperatzen ez badut ere, txartelarekin askoz ere errazago daukat osasun zerbitzuak lortzeko (Tamy)

Parte-hartzaileen aburuz, immigranteak orokorrean, baina batez ere dokumentaziorik gabekoak, osasun zentroetara joateko beldur dira, bertako langileengandik beheramendua jaso dezaketela pentsatzen dutelako. Are gehiago, dokumentaziorik gabekoek osasun zentroak ekiditen dituzte, informazio falta eta haien legez kanpoko egoera direla eta, immigrazio erakundeetan salatuak izan daitezkelaren beldur direlako. Gainera, eskakizun legalak ez betetzeagatik osasun zerbitzuak ordaindu behar dituztela esaten dietenean, hauen prezioari aurre egin ahal ez izateak, haien deportazioa eragin dezakeela uste dutelako.

Bai, hasieran beldur dira (dokumentaziorik gabeko immigranteak). Ni lehenengo aldian, beldur nintzen. Mmmm… nire beldurra bazen… medikuarengana heltzea eta berak esatea: "non daude zure dokumentuak? Zuk ez daukazu hemen egoteko eskubiderik!" (Maureen)

(Osasun sistema) Espainiako gobernuarekin komunikatu daiteke eta estatutik kanpo botako gaituzte. Gainera, dirurik ez badaukagu, osasun sistemarekin daukagun zorrak, prozesua azkartu dezake (Carol)

Horregatik, osasun zerbitzuak ordaintzeko eskaerak, sarbidearako oztopo bezala aurkitu zuten, Arjanak esan bezala:

Imajina ezazu: Oso gaixo nengoen, baina ez zidaten arretarik eman nahi. Horko gizonak (administratiboak), esan zidan: "Barkatu, baina ezin dut ezer egin". Zerbitzua jasotzeko ordaindu nezakeela ere esan zidan, baina nik esan nion: "Ordaintzea? Ez dut dirurik, ez dut laguntzarik, ez dut ezer ez". Oso zaila izan zen. Hortik alde egin nuen (Arjana)

Gainera, parte-hartzaileek adierazi zuten administratiboek ez dutela beti immigranteen osasun zerbitzuetarako sarbidearen legearen ezagutzen, batzuetan, informazio kontraesankorra ematen dute eta.

Faktore bideratzaile bezala, gizarte erakundeetan informazioa lortzea edo osasun zentroetara informazio osoa daukan norbaitekin joatea identifikatu zituzten. Horrez gain, profesional batzuek, legeak araututakoari kontra eginez, immigranteen sarbidea ahalbidetzen dutela esan zuten. Hala ere, laguntza hau, normalean, modu eraginkorrean komunikatzeagatik, tematzeagatik edo profesionalaren ezaguna izateagatik eskaintzen dela uste zuten, Teresak esan zuen bezala:

Ezagutzen nauen erizain bat, ni administratiboarekin hitz egiten nengoela, etorri zen eta esan zion: "Zein da emakume honekin dagoen arazoa?" Eta niri esan zidan: "Etor zaitez nirekin, medikuak ikus zaitzala eta gero pentsatuko dugu nola justifikatu dezakegun kontsulta" (Teressa)

Arretan, profesionalek ezartzen dituzte komunikazio arauak

Bigarren kategoriak osasun zentroetako langileekin emandako elkarrekintzan sortutako komunikazio oztopoak eta hauen ondorioak deskribatzen ditu. Bertako hizkuntzaren ezjakintasunak, sarbiderako oztopo oso garrantzitsutzat hartu zen.

Administratiboekin komunikazio eraginkorra ez edukitzeak, sarbiderako posibilitateen gutxitzea dakarrela adierazi zuten parte-hartzaileek. Gainera, profesional hauetako gutxik bertakoak ez diren hizkuntzak menperatzen dituztela uste zuten. Aldiz, osasun langileek hizkuntza gehiagotan komunikatzeko gai direla uste zuten. Nahiz eta hala izan, osasun langileekin komunikazio arazoak izan zituztenean, diagnostikatuak izateko arazoak edo tratamenduak hartzerakoan akatsak eduki zituztela adierazi zuten.

Nire lehengusua gurekin eraman nuen medikuaren kontsultara, nire semea gaixorik baitzegoen. Medikuak azaldu zigun, umeak 3 alditan arnastu behar zuela medikamentua, 10 segundoko tartearekin. Baina nire lehengusuak, 10 alditan 3 segunduro zela ulertu zuen. Imajina ezazu! Berak medikazio hartu zezan, estu hartu behar nuen eta gaixoak ezin zuen arnastu… benetan, nire semea hil egingo zela pentsatu nuen… Azkenean, ospitalera eraman nuen eta akatsaz ohartu ginen (Arjana)

Orokorrean, parte-hartzaileek zioten profesionalek ez dutela esfortzu handirik egiten haiekin komunikatzeko, immigranteekiko duten jarrera negatiboa arrazoi posible bezala azalduz. Gainera, bertako hizkuntzak ez hitz egiteak, egoera zaurgarrian ipintzen dituela zioten, profesionalen edo beste erabiltzaileen komentario arrazistei aurre egiteko ezinean egoteagatik.

Hizkuntza menperatzea abantaila bat da. Jendeak modu txarrean begiratzen zaituenean, esan dezakezulako: "Zergatik begiratzen nauzu modu horretan?" Baina hizkuntza ez badakizu… mugaturik zaude eta aurre egiteko beldur zara, ez dakizulako zer edo nola esan (Carol)

Ahhh... oso zaila da, bertan (osasun zentroetan), jendeak ez dakielako ingelesez. Ez bazaituzte ulertzen, bada… arreta eman nahi ez dizutela dirudi. Esaten didate: "Euskadin zaude, gaztelaniaz hitz egin behar duzu" (Jessy)

Bai profesionalek zein immigranteek, komunikatzeko estrategiak garatzen dituztela zioten. Adibidez, osasun zentroetara beste norbaitekin joatea, immigranteek sarritan erabiltzen duten estrategia da, batez ere lagun bat, senarra edo ondorengo bat eramaten dutelarik. Hala ere, arazo etikoa suposatu dezakeela identifikatu zuten, konfidentzialtasun eta pribatutasun falta direla eta.

Askok ez doaz osasun zentroetara komunikazio arazoak dituztelako. Edo baldin badoaz, norbaitekin doaz. Eta askotan, beste batek zure osasun arazoak ezagutu ditzan ez duzu nahi (Jessy)

Arreta desberdindua jasotzea: arrazismoa edo zorte txarra?

Hirugarren kategorian, immigrantea eta beltza izateak osasun zentroetan jasotzen duten arretan daukan eragina aztertzen da. Kasu honetan ere, parte-hartzaileek administratiboengandik eta osasun langilengandik jasotako arretan desberdintasunak sumatu zituzten:

Administratiboek, bertokoak eta immigranteak modu desberdinean tratatzen dituztela adierazi zuten. Aldiz, osasun langileen bokazioa, arrazista izatearekin bateraezina zela adierazi zuten parte-hartzaile batzuek.

Arrazismoa existitzen dela badakit, baina medikuak ez dira arrazistak; ezin dira izan, hortxe jendea laguntzeko daudelako... ez, ez, ezin dira izan (Yemi)

Hala ere, hauengandik jasandako jarrera desberdinduak ere deskribatu zituzten: Adibidez, parte-hartzaile batek gizarte zerbitzuekin arazoak izan zituen emakume baten kasua kontatu zuen, berari galdetu ezean, bere umea ondo zaintzen ez zuela egotzi ziotelarik.

Maliko emakume bat pediatrarenagana joan zen bere umetxoarekin eta honi arropa kentzeko esan zion. Gu, karité olioa botatzen diegu umetxoei, eta gazta bezalako usain txarra dauka, baina ona da beraien osasunerako. Medikuak gizarte langilea deitu zuen segituan: "umea ondo zaintzen ez duen emakume bat daukat kontsultan, umeak kriston usain txarra dauka eta". Emakume horrek arazo asko-asko eduki zituen, umea kendu nahi baitzioten! (Fatima)

Beste parte-hartzaile batek, historia klinikoan beltza zela ipini zutela ikusterakoan, txarto sentitu zela esan zuen. Azkenez, medikuek immigranteei buruz zituen estereotipoek diagnostikoan eragina izan zuten kasuak aurkeztu zituzten. Adibidez, parte-hartzaile batek esan zuen bezala, ospitaleratua zegoen bitartean, osasun langileek susmoarekin begiratzen zuten, Ebola eduki zezakeela pentsatuz, nahiz eta azken urteetan Euskaditik ez zen irten. Beste batek, medikuak diagnostikoa egiteko frogak egin nahi ez zizkiola kontatu zuen, bere sintomak moldatze faltagatik zirela adieraziz.

Medikuari azaldu nion luze neramala gaixo, hilerokoa, hilerokoa, hilerokoa... baino ez nuelako. Eta aitzakia ematen ari zidala ulertu nuen… Neukana, ez zen bakarrik moldatze faltagatik! Bi hilabete neramalako horrela. Eta berak, hotzari moldatuta ez nengoelako zela esaten zuen, baina ez zen horregatik, oso gaixorik nengoen (Mariam)

Gizarte-erakundeetan lanean zeuden parte-hartzaileek, pertsona beltzek osasun sisteman jasotzen duten arreta desberdindua eta kolonialismoaren arteko erlazioa egin zuten.

Jendeak, hizkuntza ez jakitea beltzekin erlazionatzen du. Gizarte imajinario bat dago beltzen inguruan, animaliak bezalakoak, ikasgabeak, zakarrak, primarioak, eta abar direla. Historiak beltzengan ezarri dituen etiketa horiek guztiek, gaur egun (osasu sistemarako) sarbidean eragiten dute (Elizabeth)

Parte-hartzaile hauek, osasun zentroetako langile askok immigranteei buruzko estereotipoak jarraituz, osasun zerbitzu asko eskatzen dituztela eta hauek merezi ez dituztela uste dutela adierazi zuten. Azkenez, historia koloniala, immigranteak haien burua behe-mailakoa sentitzearen arrazoia dela uste zuten, haien eskubideak defendatzea zaila eginez.

(Behe-mailakoak sentitzea) barneraturik daukate esklabotasun urte asko eta gero. Kolonizazioa, esklabotasunaren jarraipena baino ez zen izan. Eta orain, immigrazioa beste jarraipen bat baino ez da. Komunikabideetan ematen zaion tratamendua baino ez da ikusi behar. Horregatik, behe-mailakoak direla barneraturik daukate eta balio gutxiago daukatela uste dute (Elizabeth)

(Osasun zentroetan), batzuek ez dizkizute gauzak azaldu nahi. Immigrantea zara, hona zatoz baliabideak eskuratzera, hemen gogaitzeko baino ez zaude... Jarrera... betiere txarra da immigranteekiko (Anne Marie)

Parte-hartzaile batzuek desberdinkeriaz tratatuak izatea arrazismoarekin eta kolonialismoarekin erlazionatu zuten bitartean, beste batzuek desberdinkeria anekdotikoa, bakarrik beltzei gertatzen ez zaiena eta profesionalak momentu txarrean hartzeagatiko egoera kontsideratu zuten.

Profesionalek akatsak egiten dituzte, baina ez dauka zerikusirik azalaren kolorearekin. Ez, ez, ez, ez, ez, kolorearekin ez, nik ez dut inoiz hori aurkitu. Esperientzia hori eduki duten batzuk ezagutzen ditut, baina ez nik. Esaten dute: "medikuak ez nau ezta ukitzen ere!". Ez zaituzte ukitzen. Behin, baneukan mediku bat gurekiko nazka sentitzen ez zuena: ukitzen gintuen eta gero eskuak garbitzen zituen (Precious)

Discussion

Our findings suggest that Sub-Saharan African immigrant women need to overcome numerous barriers to get appropriate healthcare in the Basque Public Health System, which were explained by some of the participants as related to structural racism. That is why, the barriers found in the third category, which represents the influence of a racist shared social imaginary on immigrants and black people, influence on their access to appropriate healthcare, so also reinforces the barriers in the first and second categories. That is, these shared stereotyped preconceptions negatively affect the attention given by staff at health centres, same as health systems' and staff's unwillingness to be organized for considering the needs of a culturally, linguistically and socially diverse population.

Healthcare policies construct human beings as *not* equal in rights, stablishing different entitlement between immigrants with different social conditions and migration status. For vulnerable populations, such as undocumented immigrants and asylum seekers, entitlement is considered to be a benevolent action or a privilege rather than an exercise of their rights, for being considered undeserving of those services and perceived as an

economic burden (39,54,75,96). As seen in our study, social vulnerability of undocumented immigrants, induced by their legal situation, made them more difficult to get a source of income and pay for accommodation to be registered as a resident (39,75), which is a sine qua non condition to get the healthcare card in Spain.

In addition, undocumented immigrants suffer from stigma on the basis of documentation status (90) and as a result, are reported to have more problems than the documented ones to access healthcare, for fearing to be rejected by the health centre professionals or reported to immigration authorities, even if the absence of obligation for it (21,29,34,37,39). In other studies, as appearing in our results, access for undocumented immigrants was also described as variable and dependent on the goodwill of individual professionals (21,39). Therefore, undocumentedness acts as a great barrier not only for their entitlement to rights to healthcare, but for maintaining good health and mental health outcomes (26).

Similarly to our results, previous studies showed that the lack of entitlement to the right to healthcare is an important barrier for immigrants to access healthcare (39,86). The complexity of administrative procedures, as obtaining the healthcare card in the Spanish National Health System, is also considered in the literature as difficult to understand and to follow for immigrants (34,75), same as the demand to pay for the healthcare services is considered as a factor that prevents immigrants to access (21,34,39,75,77). However, contrary to immigrants' reported experiences, healthcare workers and managers in Catalonia and Andalusia perceived that immigrants do not have any difficulty or barrier in the process to get the healthcare card (97,81) and considered their access easy and on equal conditions to natives (97). However, professionals working at free clinics in the Basque Country perceived that immigrants have several difficulties on accessing healthcare services due to multiple barriers (84).

Like in our participants' narratives, lack of awareness of the legal entitlement among both immigrants and the staff at the health centres has also been extensively described in other studies as an important access barrier for immigrants (21,34,39,75), resulting in avoiding to access or receiving mislead information about their rights at the first point of contact with health services (39,54). In Spain, 4755 cases have gathered on which immigrants have been denied access to healthcare despite having legal rights to access, especially after the law reform of 2012 (98).

Therefore, entitlement is not the only barrier in order to access an appropriate healthcare. Like our participants stated, the language barrier has also been extensively described in the literature as one of the main barriers to an effective access to healthcare for immigrants (21,34,39,54,75,77,99), but few times the unwillingness of the staff to provide attention in a not local language has been pointed as a problem (39). As seen in our results, ineffective communication compromised the biomedical care and the received attention (99). Even if using interpreters is a usual strategy for immigrants to communicate in the health system,

their use does not mean that patients' needs and concerns are heard (39,99). On top of that, the use of relatives and/or non-professional interpreters can lead to ethical problems in terms of misunderstandings, confidentiality and privacy (75).

Out of a shared language, there are some other factors that can favour the communication and relationship between patients and professionals, like a receptive attitude or the efforts made by professionals to meet and attend patients' necessities and to understand their cultural characteristics (99). In contrast, lack of cross cultural knowledge and different beliefs about health and disease complicate healthcare providers' understanding of the reason of consultation and the therapeutic approach to be undertaken (100).

Further than professionals' knowledge and willingness to provide an appropriate attention, racism also appears during the professional-patient interaction, as structural racism is deeply enrooted in social institutions, including the health system, its culture and norms (101). Especially in times of crisis, immigrants have been pointed out as "over users" of healthcare services (97). Even if it has been repeatedly stated that immigrants use in general the healthcare services in a minor proportion than native population (8,9,11,102), usually health centre staff share this vision of the disproportionate use of healthcare services by immigrants. Consequently, access disparities, delays or avoidance of accessing healthcare, and mistrust of the health system among immigrants can increase (27,101).

Same as it was identified by two of our participants, a study in France revealed how the caregivers also projected inherited representations of colonialism on Africans, marking them either as violent or as naive, which provoke differentiated healthcare practices (103).

The paradox of expressing overall satisfaction with healthcare services despite of having perceived discrimination or bad treatment that arose in our study was also found in a research about immigrants' perceptions of healthcare attention in the Spanish National Health System. Almost all the participants expressed having been treated respectfully, while at the same time, 60% also perceived discrimination towards immigrants and almost 70% answered that cultural differences negatively affected the quality of received attention (104). Expressing overall satisfaction despite of perceiving discrimination, have been explained based on a better consideration of the health systems at the host country, in comparison with a more limited or not for free attention in their country of origin (79,97). Same as the denial of having experienced racism, or considering it as a random experience as appeared in our results, can be seen as a strategy to "take over" the consequences derived from those situations, such as accepting being oneself in a disadvantaged social position (105).

The health system organization and the practices of the staff at the health centres have the capacity of transforming or preserving the power relations within the health systems (92). Even if barriers coming from them were identified, some facilitators, mainly related to professionals' good practices were also found.

Methodological considerations

For the recruitment, differences in power relations between researcher and participants may have influenced the willingness to participate and contribute to participants´ socially desirable responses. At the time to recruit the women in the waiting room of the free clinic, the first author presented herself as a researcher at the regional university and a nurse volunteering at the free clinic in order to increase participants' confidence and therefore, their predisposition to participate. The place of recruitment, which was considered friendly for immigrants as it was a well-known NGO free clinic, presumably increased the confidence of the immigrant women to participate. However, the acceptance of participation could have also been related to expectations of getting a differentiated attention at the free clinic where they were recruited.

During data collection, even if the topic was not related to personal health issues, participants may have had to recall situations of discrimination in the health system, which may have put them in a vulnerable situation in front of the researcher.

Most of the interviews were made in Spanish. Interviewer's first language is Spanish, while it is not for any of the participants. Likewise, some language nuances could have been missed when translating the interviews from French into Spanish.

In order to analyse the data in the most rigorous way possible, due to the absence of familiarity with the topic, authors performing it were constantly consulting each other during the process. The narrative of the results was repeatedly shared with all authors in order to ascertain that the way women's experiences were interpreted remained grounded on the data.

EZTABAIDA OROKORRA/GENERAL DISCUSSION

Eztabaida orokorrean, ikerketetan agertutako emaitzarik nabarmenenak literaturako emaitzekin alderatzen dira. Hauek, Watters-ek ezarritako sarbiderako mailetan klasifikatuko dira; hau da, osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea, hauetarako sarbidea eta hauen egokitasuna (54).

Osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea

Immigrazio eta osasun politikak, immigranteekiko praktika instituzionalak gidatzeaz gain, hauekiko gizarte onarpena eta babes legala neurtzeko tresnak ere badira. Europako herrialde anitzetan, Giza eskubideen eta dokumenturik gabeko immigranteak osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidearen artean desberdintasun nabarmena dago (34).

Herrialde Europarrek, bakoitzak modu desberdinean aitortzen die immigranteei osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea. Espainia, 2018ko uztailean aplikatutako legearen ostean, Europako herrialdeen artean, immigranteei zerbitzu gehien eskaintzen dien herrialdeen artean dago (106). Hala ere, immigrante guztiak ez dira berdin tratatuak legearen aurrean; adibidez, Europar Batasuneko (EB) beste herrialdeetatik datozenak, ez dute oztopo legalik haien sarbidean (107). Halaber, konpentsazio historikoa dela eta, Latino Amerikako immigranteak, beste EB-tik kanpoko immigranteekin konparaturik, nazionalizazioa lortzeko baldintza errazagoak dauzkate (80). Honek, beste batzuen artean, osasun sistemarako sarbidea lortzea errazten die.

Gure ikerketetan agertu den bezala, literaturak osasun zerbitzuak jasotzeko eskubiderik eza, immigranteen sarbiderako oztopo nabarmena dela dio (39,84). Azkenengo krisialdiaren garaian egindako ikerketa batek, eskubide honen murrizteak immigranteen hilkortasuna handitu zuela dio; Espainian, 2012ko osasun legea aplikatu zenetik, hauen hilkortasuna %16.82, %15.08 eta %22.6 igo zelako 2013, 2014 eta 2015. urteetan, hurrenez hurren (108).

Prozesu administratiboen betetzea, informazioa edo osasun txartela lortzea bezala, immigranteentzako zaila kontsideratu zen (34,75). Gainera, dokumentaziorik gabeko immigranteentzako, haien gizarte eta bizi baldintza okerragoak direla eta, errolda lortzea oztopo garrantzitsutzat eman zen (39,54,75), hau osasun zerbitzuak modu jarraian jasotzeko beharrezkoa den osasun txartela lortzeko baldintza izanda. Gainera, Espainian modu ilegalean sartzen diren immigranteak, askotan identifikazio dokumenturik gabe heltzen dira, migrazio prozesuaren baldintzak eta sufritutako indarkeria direla eta.

Osasun eskubidea betetzeko, gizarteko populaziorik zaurgarrienei osasun zerbitzuak eskaintzea nahitaezkoa da estatuentzat. Beraz, diskriminaziorik-eza eta erantzukizun printzipioak errespetatu behar dituzte.

Osasun eskubideko erantzukizuna eta diskriminaziorik-eza printzipioak Espainiako testuinguru legalean

Hunt and Backman-ek dioten bezala (58), osasun eskubidearekiko estatuen erantzukizuna bi zutabeetan oinarritzen da: Lehenengo, osasun eskubidea lege nazionaletan agertu behar da. Bigarren, eskubideari buruzko informazio argia eskaini behar zaie bai osasun zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalei zein erabiltzaileei, legitimikoki eskatu dezaketena ezagutu dezaten.

Espainia eta Euskadiko legeria azaltzen den atalean ikusi den bezala, immigranteen osasun zerbitzuetarako sarbidea Espainia osoan, 2012. urtera arte, unibertsala kontsideratzen zen. Ordura arte, osasun sistema nazional osoan, osasun zerbitzuak, Espainiako edozein herritan 90 eguneko errolda zuen edonori eskaintzen zitzaizkion. Gainera, betiere atentzioa ziurtatuta zeukaten honako kasuek: adingabekoek, emergentziek eta jaio aurreko, erditzeko eta erditu eta osteko zainketak behar dituzten emakumeak (1. Taula ikusi).

Krisi garaian, RDL 16/2012 onartu zen, lege aldaketa egiteko nahitaezkoa den justifikazio ekonomikoa eta gizartean izango duen eragina neurtzeko txostenik gabe (44,45). Nazioarteko Giza eskubideak babesteko erakunde askok[6] ardura adierazi zuten lege berriak immigranteen osasunean eduki zezakeen eragina zela eta. Hala ere, araua ez zuten aldatu, 2018ko uztailean gobernu berri batek egin zuen arte.

Estatuak osasun eskubidea guztiontzako bermatzeko erantzuleak dira. Beraz, estutasun ekonomikoa ez da neurri atzerakoiak hartzeko justifikazio legitimoa (55,56). Neurri atzerakoiak hartzeko beharretan, estatuak alternatiba posible guztiak kontuan izan dituela frogatu behar du (56). Hala ere, RDL 16/2012-a onartzeko, ez zen ebaluazio txostenik aurkeztu (48). Auzitegi Konstituzionalak berak diru publikoaren aurrezpena behar bezala justifikaturik egon ez zela adierazi zuen (45).

Dokumentaziorik gabeko immigranteak osasun zerbitzuetatik kanpo uztean, RDL 16/2012-a, argi eta garbi jo zuen osasun eskubideko diskriminaziorik-eza printzipioaren kontra. Printzipio honek, estatuek osasun zerbitzuak guztiontzako bermatzeko, diskriminazio modu guztiekin bukatzeko obligazioa daukala esaten du (55).

Gobernuak, beste neurrien artean, 873,000 dokumenturik gabeko immigranteen osasun txartelak baliogabetu zituela onartu zuen (5), lehen mailako arreta zerbitzuetatik kanpo utziz. Literaturak behin eta berriro erakutsi duen bezala, lehen mailako arreta mugatzeak,

[6] Besteak beste, osasun lege berria aldatzeko edo kentzeko gomendioak hauek egin zituzten (48):

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaletarako komitea
Nazio Batuetako Intolerantzia, xenofobia eta arrazismo forma desberdinetarako erreportaria
Nazio Batuetako guztiontzako osasun eskubiderako erreportaria
Nazio Batuetako migratuen Giza eskubideetarako erreportaria
Europar Batasuneko Giza eskubideetarako batzordea
Europar Batasuneko gizarte eskubideetarako batzordea
Nazio Batuetako Giza eskubideetarako eta muturreko pobreziarako erreportaria
Nazio Batuetako pertsonen trafikorako erreportaria

emergentzia unitateak gehiago erabiltzera darama. Honek, kostu gehiago suposatzeaz gain, osasun publikorako arriskua suposatzen duelarik (44).

Jarraipen eta ebaluazioan, erakunde publikoez gain, gizarte erakundeek rol erabakitzailea daukate. Adibidez, 2012ko lege aldaketan, osasun langileen sareak sortu ziren, lege berriari desobedientzia egiteko euskarria eskaintzen zituztenak (109).

Nahiz eta osasun eskubideak estatuek populazio zaurgarrien osasun zerbitzuetarako eskubidea bermatu behar dutela esan, printzipio honekin ez betetzeak ez du ondorio legalik. 2012. urtean gertatutako legearen aldaketa, hau baieztatzeko kasu paradigmatikoa da.

Erantzukizunaren bigarren oinarria aintzat hartuz, lege aldaketak immigranteen osasun zerbitzuetarako eskubidearen gainean informazio nahastea sortu zuen; bai osasun zentroetako langileetan zein erabiltzaileetan (21,34). Profesionalen informazio ezak, osasun zerbitzuetarako eskubidearen urraketa gehiago egon dadila eragiten du. REDER-ek, RDL 16/2012-aren aurkako erresistentzia sareak, 2014ko urtarriletik 2019ko urtarrileraino, 4755 eskubide urraketa bildu ditu. Hauen artean, eskakizun legalak betetzen zituztenei arretarik ez eskaintzea, osasun zentroan informazio okerra jasotzeak edo osasun zerbitzuen fakturatze okerrak daude (98). Médicos del Mundo Euskadi-ko dohaineko klinikan, 2014ko irailetik 2018ko ekainera, Euskadiko osasun sisteman gertatutako 106 eskubideen urraketa bildu dira.

Dohaineko klinikak: aho biko baliabideak

Lehenengo ikerketaren emaitzetan ikusi den bezala, lehen mailako arreta eskaintzen duen dohaineko klinikan, urtero 700-1000 osasun kontsulta inguru ematen dira. Sexu eta ugalketa osasun dohaineko klinika batek, 2014. urtean, 517 emakume immigranteri arreta eman ziotela adierazi zuen honen arduradunak.

Alde batetik, dohaineko klinikak beharrezkoak direla agertu da gure ikerketetan, osasun sistematik kanpo dauden immigranteei informazioa eta osasun arreta ematen diotelako. Gainera, osasun publiko arazoa izan daitezkeen kasuak identifikatzen dituelako. Hala ere, hauen lanarik nabarmenena, osasun eskubideari buruz egiten duten intzidentzia politikoa kontsideratu zen.

Hala eta guztiz ere, aho biko ezpatak bezala ere kontsideratu ziren, edo baliabide arriskutsuak, osasun sistema paralelo baten eraketa ahalbidetzen dutelako, immigranteen sarbidearenganako botere publikoen arduragabekeria sustatu dezakeena (20). Gainera, osasun eskubidearen interpretazioan, adituek ordezko osasun zerbitzuak garatzearen aurka aurkezten dira, arrazoi berbera dela eta (60).

Osasun zerbitzuetarako sarbidea

Watters-en modeloan adierazten den osasun zerbitzuetarako sarbidea mailan eragiten duten oztopo eta faktore bideragarriak, Levesque-k ezarritako dimentsioetan klasifikaturik hobeto aurkeztu daitezke (28):

Gerturatze dimentsioarekin erlazionaturik, osasun zerbitzuen identifikazioa eta hauek erabiltzeko modua, gaixotasuna eta osasunari buruzko kontsiderazio sozial eta kulturalekin erlazionaturik daudela ikusi da (75,76). Gainera, osasun sistemari buruzko informazioa edukitzeko eta hauetara hurbiltzeko, sistemak berak populazio zaurgarrietara hurbiltzeko egiten dituen esfortzu eskasak oztopo bezala azaldu zen (29). Informazioa, osasun zentroetan eta web orrialdean baino ez da ematen. Beraz, baliabide hauek aurrez ezagutu behar dira, informazioa jaso ahal izateko. Tesian ikusi den bezala, administratiboak osasun zentroetan informazioa emateko arduradunak dira (66), baina immigranteen osasun zerbitzuetarako sarbiderako informazioa ez dute beti behar bezala ezagutzen. Horregatik, dohaineko klinikek eta beste gizarte erakundeek eskaintzen duten informazioa eta aholkularitza dela eta, hauekin harremanetan egotea sarbiderako faktore bideragarri bezala azaldu zen (20,21,25).

Osasun zerbitzuen onarpenaren dimentsioan, dokumentaziorik gabekoa izatea, osasun zerbitzuetarako eta osasun fisikoa eta mentala mantentzeko oztopoa dela aurkitu zen (20,26,77). Lehenengo, dokumentaziorik ez edukitzea dakarren estigmagatik (90) eta haien eskubideei eta osasun sistemaren funtzionamenduari buruzko ezagutza faltagatik (21). Bigarren, osasun zentroetara gerturatzea ekidin dezaketelako, baztertuak izateko edo zentroetako langileak immigrazio erakundeei haien presentziaren berri eman dezaketelako beldurra dela eta (21,29,34,37,39). Horregatik guztiagatik, dokumentaziorik gabeko immigranteek, dokumentazioa daukatenek baino oztopo gehiago dituzte osasun zerbitzuetarako sarbidean (21). 2015. urteko ikerketa batek dio, azkeneko urtean Europako herrialdeetan, dokumentaziorik gabeko bost immigrantetatik batek, osasun zerbitzuetarako sarbidea alde batera utzi zuela aurkitutako oztopoak zirela eta (110). Faktore bideragarri bezala, sare sozial pertsonal zabala eta harrerako herrialdean denbora luzea egotea adierazi ziren (21,78), osasun sistemarekiko ezagutza eta konfiantza handitzen dutelako.

Erabilgarritasun dimentsioan, bai tesiaren emaitzetan zein literaturan, eskakizun legalak ez betetzea, sarbidea oztopatzen duen faktore erabakigarri bezala agertu zen (29). Prostituzioan jarduteak edo genero indarkeria sufritzeak, osasun zentroetara hurbiltzeko emakumeen autonomia gutxitzen duela ikusi da (19,82). Kasu hauetan, dohaineko klinikak, immigranteen osasuna eta osasun zerbitzuetarako sarbiderako sustatzailetzat eman ziren (20,21,25), hauek emandako osasun zerbitzu, aholkularitza legala eta intzidentzia politikoa dela eta.

Ordaintzeko ahalmenarekin erlazionaturik, jasotako osasun zerbitzuengatik ordaindu behar izateko beldurrak sarbiderako oztopoa zela adierazi zen (77). Tradizionalki, Espainiako osasun sisteman jasotako zerbitzuak dohainekoak izan dira. Hala ere, RDL 16/2012 aplikatu zenetik 2018ko uztailera arte, bai Espainian zein Euskadin, eskakizun legalak

betetzen ez zituztenen zerbitzuak ordaindu behar zirela ezarri zen (43,50). Lana edukitzea, aldiz, zerbitzuak ordaintzeko ahalmena handitzen duenez, sarbiderako faktore bideragarri kontsideratu zen.

Osasun zerbitzuetako egokitasuna

Komunikazioa

Gure emaitzetan sarritan agertu den bezala, literaturak hizkuntzaren ezjakintasuna sarbiderako oztopo oso garrantzitsu bezala ezarri du (21,34,39,54,75,77,99). Ezaugarri kulturalen ezagutzak eta jarrera harkorra izateak ere komunikazioan modu positiboan eragiten dute, profesional eta erabiltzailearen arteko erlazioa hobetuz. Horregatik, ulertzea eta ulertua izateak, informazioa era eraginkor batean lortzeko faktore gakoa da. Aldiz, komunikazio ez-eraginkor batek, jasotako osasun zerbitzuak konpromisoan ipini ditzake (99).

Euskadiko osasun sisteman, osasun arreta eskaintzen ez duten profesionalak, (administratiboak barne), hizkuntza ez-lokalak ezagutzeagatik ez dira sarituak izaten. Gainera, osasun zentroetako langileek eskura dituzten itzultzeko tresnak ez dituzte era egokian erabiltzen; osasun zentroetan komunikazio arazoak eduki dituzten parte-hartzaileekin, batekin ere ez dutelako Osakidetzak eskaintzen duen aldibereko itzulpenerako tresna erabili. Honen arrazoiak, erabiltzaile bakoitzari arreta emateko denbora eskasa eta beste lehentasunen agerpena izan zitezkeela adierazi da (16). Bitartekari kulturalen erabilera, egoera hau hobetu dezake (75), familiakoak edo adingabekoak itzultzaile bezala erabiltzeak, arretaren kalitatea konprometitzeaz gain, gatazka etikoak ere sortu ditzakelako (4).

Arrazismoa

Arrazismo estrukturala gizartean, osasun sisteman eta honen kultura eta arauetan erroturik dago (101). Bereziki krisialdietan, immigranteak osasun zerbitzuen gehiegizko erabilera egiten dutela kontsideratu egin da (97). Aldiz, literaturak behin eta berriro frogatu egin du immigranteak, pertsona lokalekin konparaturik, hauek proportzio txikiagoan erabiltzen dituztela (8,9,11,102). Premisa honek, immigranteak osasun eta gizarte prestazioak merezi ez dituen “bestea” bezala kontsideratzen duen gizarte arrazoibidea indartzen du (54). Bestearen eraketarako prozesu honek, gizarte botereen desoreka mantentzen laguntzen du (111).

“Ilegal” bezala ikusiak diren pertsonak, dokumentaziorik gabekoak edo asilo-eskatzaileak besteak beste, gizarteko kide ez-legitimo bezala kontsideratuak dira. Ondorioz, haiei osasun zerbitzuak eskaintzea borondate oneko ekintzatzat eta zama ekonomikotzat ematen da, haien eskubideen partetzat baino (39,54,75,96).

Arrazismo estrukturala profesional eta pazientearen arteko erlazioan ere agertzen da (101). Osasun zentroetako langileek ere, sarritan, immigranteek osasun zerbitzuen gehiegizko erabilera egiten dutenaren pertzepzioa badaukate (17). Horrela, osasun sistemaren barnean botereen desoreka mantendu dadila ahalbidetzen dute (19). Hala ere, nahiz eta desberdinkerian oinarrituriko arreta eskaintzen duten, askotan ez dute nahita egiten, gizartearen baloreak jarraituz baino (112) eta horregatik, osasun sisteman ematen diren praktika arrazistak, ikusezin irauten dute (113). Osasun zentroetako langileen jardunbide egokiek, beraz, osasun sistemarekiko pertsona indibidualek dauzkaten esperientzietan eragina izan dezakete, baina osasun sistema eta gizartearen antolakuntzan ere eragingo dute.

Osasun langileen gida etikoek, kode deontologikoak barne, legeen eduki aldakorrak aldera utziz, pertsona guztiei diskriminaziorik gabeko arreta eskaintzeko beharra adierazten dute. Osasun sistema barneratzaileagoa garatzeko, eskubideetan oinarritutako arretaren baloreak indartu, profesionalen ezagutza garatu eta bitartekaritza kulturala bezalako neurriak hartu beharko lirateke.

ONDORIOAK/CONCLUSIONS

Emakume immigranteen Euskadiko osasun zerbitzuetarako sarbidea oztopatzen duten faktoreak, lau motatakoak izan daitezke: 1) immigranteen ezaugarri pertsonalak, haien jatorriarekin estu erlazionaturik daudenak; 2) osasun zentroetako langileen immigranteenganako jarrera; 3) osasun sistemaren ezaugarriak eta funtzionamendua eta 4) eskakizun legalak. Aurreko faktorez gain, arrazismo estrukturalaren eraginak ere immigranteen osasun zerbitzuetarako oztopoa suposatzen duela aurkitu zen. Gainera, hau gizartean oso erroturik dagoenez, osasun sisteman barne, eskakizun legalak, osasun sistemaren funtzionamendua eta immigranteekiko imajinario sozialean ere eragina dauka.

Maila legalean, osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea sarbide egokia ahalbidetzen duen faktore erabakigarri bezala agertu zen. Maila honetan gehien errepikatutako oztopoak, zerbitzuak jasotzeko eskubiderik eza, eskakizun legalak betetzeko zailtasunak eta dokumentaziorik gabekoa izatea izan ziren.

